




ELKARRIZKETA: PATXI AZPIAZU, AGAKO

Arrasate

P R E S S

1999ko
Martxoaren 6
411. zenak.



Bai, nahi dut

IKUSPEGIA: JOSE MARÍ ASTIGARRAGA • KIROLAK: EKAIN GARIN
EUREN IKUSPUNTUTIK: VICENTE ALONSO • GURE ENPRESAK: MCC

ELKARRIZKETA: PATXI AZPIAZU, AGAKO - ARRASATE - Tel.: 76 00 43

EZ DAGO KONPARAZIORIK



OMU
KERAMIKAK



Biltegia eta bulegoak: Meatzerreka, 6 • Tel./Faxa: (943) 79 14 28 • ARRASATE
Erakusketa: Otalora, 1 behea • Tel.: 79 07 20 • ARRASATE

ERAIKUNTZARAKO MATERIALAK

Parrokiaren berrikuntza dela eta

Egun gutxi barru parrokia zaharberriaren ateak irekiko dira. Ez dira izan errazak haurdunaldiaren buruhausteak, ez eta motzak ere: hamalau hilabete. Erditu dugun "umea", beharbada guraso sortzaile sentitzen garelako batzarkideak, ederra, erakargarria eta adorez bete iruditzen zaigu guri.

Arbasoen "geneak" eta egitura ditu, XIV-XV. gotiko garbia, eta gaurko eraikuntzen modernitatea: koruko egitura espaziala, punta-puntako argiteria, megafonia, eta abar, eta abar.

Beharbada ez didazu sinestuko, baina hiritargoak eta kulturak bultzatu ninduten berritzearen abentura ikaragarria. Eraikuntzaren ardura nire eskuetan zegoen, parrokiak bazuen



Jose Mari Astigarraga

"Hiritargoak eta kulturak bultzatu ninduten erabateko berrikuntzara"

txukuntzeko premia elizkizunetarako eta, baina hiritargoak eta kulturak bultzatu ninduten berrikuntza serio eta erabatekoa planteatzera.

Arrasate bezalako herri puntero batek ezin zuen utzi herrian dagoen eraikuntza antzinakoena eta historiko-artistikoena. zegoen egoera negargarrian. Eta horrela ulertu zuten, baiezko garbia emanaz, batzorderako deitu nituen mondra-seneko gizon-emakumeek. Eta horrela ulertu du herriaren gehiengoak ere. Animoak ezezik, diru laguntza ere luze eta oparoa eskaini digu.

Bejondeizuela guztioi! Zorionak eta eskerrik asko!

Oharrak

• Parrokia berri ere irekitzeko ospakizuna

ekainaren 13an egingo da, San Antonio eguneko larunbatean, goizeko 11:00etan. Egun horretan On Jose Maria Setien gure gotzainak aldare berria sagaratuko du eta eliza berri ere bedeinkatuko. Denon artean emango diogu hasiera aro berri honi, Meza Santua bihotzez eta esker onez ospatuz.

• Joan den astean kanpakiak eta erlojua ekarri eta egokitu ziren. Bi kanpai berriak dira. Gainerako hamarren artean hiru XV. eta XVI. mendekoak dira. Erlojua elektronikoa da eta ordulariaren esferak 110 zentimetro ditu.

Aste honetan elizaratu dira eta jartzen hasi Donostiako museoan eta Bilboko berrikuntza lantegian geneuzkan santuen irudiak.

Aldare nagusirako antzinako San Joan barrokoa (1636), Gasteizko Pedro de Ayalak egina, zaharberri da. Hark ere eginak dira berriren diren San Ignazio eta San Frantzisko Xabierren irudiak. ■

"Inork ez du, baliabide ekonomikorik ez duelako, eragozpenik izango (Mondragon) unibertitate honetan sartzeko"

Antonio Cancelo

13

Mondragon

Unibertitateko titulazioak

Erdi eta goi mailako 13 titulazio eta guztira 2.319 ikasle ditu MUK. 1.700 milioi pta.ko aurrekontua du. Horren erdia ikasleen matrikulen bidez estaltzen da. %35 enpresek eta %15 administrazioak jartzen dute.

ITURRI ONETIK

Ezkertokia eztabaidagai

Pablo Uranga kalean dagoen Montxon Elkarteak sasoi batean Euskadiko Ezkerraren ezkertokia izan zen. Tokia, berri, ez zen EErena, garai batean Euskadiko Partidu Komunistan ibilitako hiru lagunenez izenean baitzegoen. EE banatu zenean, ordea, haietako bat sozialistekin joan zen eta beste biak Euskal Ezkerrera.

Gaur egun Montxon Elkarteko lagunak erosi nahiko lukete tokia. Ondoren, hobekuntzak egingo lituzkete elkartean. Salmentako diruarekin, gainera, lagundu egingo liekete EEko diru zorrak ordaintzen ari diren zenbait laguni. Eta hor omen dago kokka: hasierako hiru lagunak ez dira ados jartzen diruaren erabilerari dagokionean.



ARRASATE KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tel.: 77 05 65, Faxa: 77 09 40 E-mail: arrasatepress@readyssoft.es

Laguntzaileak: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Joxe Aranzabal. **Kazetariak:** Marijo Deogracias, Marian Porcasi, Nisara Gorroño. **Publizitatea:** Kaitlin Allende, Nerea Zallo. **Arantza:** Lagunilla. (Tel.: 77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Ginzarain (Tel.: 79 02 26). **Diseinua:** Txos Azurmendi. **Asteburuetako berriemakileria:** Lierni Urbarren. **Kolaboratzaileak:** Ander Etxeberria, Marta del Campo, Iban del Campo, Ibaro Artola, Bixente Azkarate, Joxerra Agirreurreta, Juan Luis Azkarate, Aitor Orrobegoa, Mikel Inzar, Udaleko Gazteria Salla, ASA taldea, Eneko Allende, Besaide M. E., Karmelo Urbarren, Bixente Pagoaga, Amaia Jaurregi-Arriburo, Juan Bautista Agoria, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Karmela Perez, Kopti, Jon Ozaeta, Jabi Luengo, Maite Barrena. **Banabekita arduradunak:** Jasone Mendizabal-AE. (Tel.: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.300. **Lege-Gordailua:** 1124/83. **ISSN:** 0214-4654. **Franko-kontzertatua.** **Inprimetgia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Laso.



Arrasateko Udalaren laguntza



Gipuzkoako Foru Aldundiren laguntza



Eusko Jaurlaritzako Kultur Saitaren laguntza

GUARDIAKO FARMAZIAK

- Ostirala 5**
Egunez: Zabala, Zarugalde
Gauzez: Mozos, Bergara
- Larunbata 6**
Egunez: Ruiz, Magdalena
Gauzez: Camacho, Bergara
- Igandea 7**
Egunez: Morales, San Andres
Gauzez: Camacho, Bergara
- Astelehena 8**
Egunez: Azkoaga, Ferrerias
Gauzez: Puy, Bergara
- Asteartea 9**
Egunez: Español, Iturritoz
Gauzez: Guallar, Bergara
- Asteazkena 10**
Egunez: Korkuera, Musakola
Gauzez: Estella, Bergara
- Osteguna 11**
Egunez: Irizar, Erquin
Gauzez: Mozos, Bergara

BEHARREZKO TELEFONOAK

- Eritetxeak**
Arrasateko Eskualde-Ospit. . . 79 53 00
Igualatorria 79 05 00
Santa Agedako Ospitalea
(gizonak) 79 39 00
(emakumeak) 79 44 11
Buru osasunerako zentrua . . 79 90 11
- Gurutze Gorria**
Bergara 76 55 76
- DYA**
Antzuola 78 71 57
- Anbulatorioak**
Arrasate (Larnialdiak) 79 13 57
• Txanda hartzeko; medikuntza
orokorra eta pediatria . . . 77 03 46
• Espezialitateak 77 05 78
• 77 12 64
Oñati 78 08 52
Eskoriatza 79 98 58
Aretxabaleta 79 74 58
Aramaio (945) 45 51 16
- Anbulantziak**
Gipuzkoako ambulantiak . . . 45 87 44
- Udaltzaingoa**
Oñati 78 04 11
Bergara 76 14 69
Arrasate 79 14 39
Aretxabaleta 79 10 52
Eskoriatza 088
- Ertzaintza**
Arrasate 79 71 99
- Suhiltzaileak**
Udal taldea 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua . 79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea . . 088
- Matxurak**
Urak (udal zerbitzua) 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
. 79 78 44
. 79 76 78
- Garraioak**
Taxiak 79 12 22
PESA 902 10 12 10
- Hirugarren adinekoentzako zentruak**
Iturbide Egoitza 79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza . . . 79 81 57
- Kontsumitzailearentzako informazioa**
KIUB-OMIC 79 51 55
- Monterron liburutegia**
Monterron 77 01 05
- Irratia**
Arrasate Irratia 79 58 77

ELGETAKO ASENTZIO

Hasteko, nire eskerrik bero-
Henak *Arrasate Pressi* Deba
Garaiko informazioa emate-
an Elgetarekin gogoratzen
delako. Orain, 407. zenbakian
egin duzuen oker bat zuzen-
du nahi dut. Elgetako San
Asentzioko jaiak aipatzen
dituzue ale horretan. Bada,
Elgetan ez da santu horren ize-
na duen ermitarik, Asentzio
—Igokunde—baizik. Beraz,
Asentzioko jaiak ospatu dira.
San Asentziok barka zaidala,
baina Elgetan ez du jarrai-
tzailerik.

Alberto Agirreazaldegia

ELGEAKO PARKE EOLIKOAZ

Arrasate Press-eko 407.
Azenbakian (maiatzak 15)
energia eolikoari buruzko
artikuluari agertu ziren bi
datu, ez dira zuzenak:

- Elgean, 600 kw.ko 40
haize errota izango lituzkeen
parke eolikoak egingo balitz,
eta ezagutzen diren haize
datuak kontuan hartuz, urte-
ko produkzioa 66.000.000
kwh izango litzateke.

Familia batek bi hilabe-
terero 440 kwh gastatzen badi-
tu, urte batean 2.640 kwh
izango dira. Beraz,
66.000.000 kwh / 2.640
kwh/familia = 25.000 fami-
lia. Familia bakoitzak lau per-
tsona dituela hartzen badugu,
hauxe ondoriozta dezakegu,
alegia, Elgeako parke eoli-
koak 100.000 personaren kon-
tsumo beharrak estaltzeko
lain energia sortuko duela, eta
ez 8.500 biztanlerentzat, aipa-
tu alean agertzen zen bezala.

- Gaur egungo merkatu

eolikoa ezagututa, ezin dai-
teke esan inolaz ere 600 kwko
haize errota “teknologia zaha-
rra” denik. Enpresa eoliko
batzuek orain dela gutxi bihur-
tu dituzte beraien 500-750
kwko prototipoak serie
komertzialean.

Beste alde batetik VES-
TAS enpresa, adibidez, orain
dela hilabete batzuk ari da bere
1.650 kwko haize errota aldiz-
karietan iragartzen, baina
modelo honen aplikazioak
oso zehatzak dira.

Une hauetan, munduan
zehar gehien saltzen diren
aerogeneradoreak 500 eta 750
kw artean daude.

Vicente Alonso
Ikerlaneko Energia
departamentuko kidea.

GAUZAK NAHASTU BARIK

Duela aste batzuk Arrasa-
teko Udalaren bando bat
espainolez zabaldu zela eta,
Euskal Herrian Euskaraz
(EHE) taldearen “Hitzarme-
na zapuztuz” izeneko esku-
titza argitaratu zen sail hone-
tan bertan. Eskutitz horretan
esandakoei buruz zehaztasun
hauek egin nahi ditugu:

- Arrazoi du EHEk bando
hori espainolez bakarrik zaba-
ldu izana kritikatzeko duenean.
Izan ere, legez bando horrek
euskaraz ere behar zuen.

- EHEk gertaera horri
buruz egiten duen interpre-
tazioa desegokia da, ordea.
Bandoa espainol hutsean ate-
ratzea akats tekniko baten
ondorioa izan da eta ez era-
baki politiko batena.

- EHE gonbidatu egiten
dugu udalaren jokaera lin-

guistikoari buruzko informa-
ziorik jaso nahi izanez gero,
Euskara zerbitzura etor dadin,
Arrasateko Udaleko
Euskara zerbitzua.

ELGEAKO ZENTRAL EOLIKOA BERRIRO

Deba Garaiko mendi talde-
ak, Gipuzkoako Mendiza-
le Federakundeak, Ekik, Eguz-
kik eta Arrasateko AHTren
Aurkako Asanbladak, azke-
nengo *Arrasate Pressen* argi-
taratutako iritzi artikulu bate-
an honako hau esan zuten:
“gure mendi ederren sakrifizioa
onartuko genuke, baldin eta
sortutako onurak mereziko
balu, baina Elgeako zentralak
gutxi gorabehera 8.500 biz-
tanleko herri bat hornitzeko
behar den elektrizitatea beste-
rik ez du sortuko”.

Eolicas de Euskadi S.A.
enpresak argitaratutako
“Energia Eolikoak EAEn” izen-
eko txosten batean, eta
1998ko otsailaren 4an Gas-
teizen prentsaurrean eman-
dakoan, berriaz, honako hau:
“Elgeako instalazioak 30-40
aerosorgailu izango ditu, 600
kw.ko potentzia unitateko.
Espero den ekoizpen elektri-
koa 60.000.000 kw ordu-
ko/urtekoa da, 100.000 per-
tsonaren kontsumoaren balio-
kidea dena”.

Mendi taldeek eta ekolo-
gistek ez dute argitzen elek-
trizitate kantitate hori aste
bati dagokion, urte bati edo
mende bati (urtekoa izango
delakoan nago), baina argi
dago euren eta Eolicasen
informazioa ez datorrela bat.

J.L. Azkarate

Sili Sili
Martxa eta estilo handiko arropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 79 81 82

UGARAN jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 79 76 58
ARRASATE

M MEMESA
Industria hornidurak
Tel. 71 24 25

GAL auziaren epaia zein izan beharko litzateke zure ustez?

Akusatuek krimenak barkatzea nahi dute, gertatu zirenetik urte asko igaro direlako.



Izaskun Zubizarreta
(47 urte)
Etxekoandrea

Irakurri dudanagatik, errudunak direla uste dut. Zigor-tu egin beharko litzukete.



Ruben Ganboa
(15 urte)
Ikaslea

Pasatu den guztiarekin, espetxean sartzea merezi dutela uste dut.



Amaia Llodio
(25 urte)
Ikaslea

Nire ustez, frogatuta dago errudunak direla. Orduan, espetxera.




Anjel Tricio
(43 urte)
Langilea

Zer edo zer gaizki egin badute, ordain dezatela.



Aitor Arsuaga
(34 urte)
Langabea

Denak barrura. Hori izan beharko litzateke sententzia



Evelin Rodriguez
(27 urte)
Langilea

Ez dut idearik ere. Ez dut gai horretaz ezer ere entzun.



Kontxi Munitxa
(65 urte)
Etxekoandrea

Nik uste dut hor badagoe-la zer edo zer. Epai dezatela eta epaileak esango du zer merezi duten.



Izaskun Aranguren
(19 urte)
Ikaslea

Errudunak direla uste dut.

ORTO + LAGUN

O R T O P E D I A

*Mina izan aurretik, zatoz guregana!
Minari aurea hartzea da gure apostua*

- Bizkarra zaintzeko faja bereziak
- Oinetako erosoak

Kontzeziño, 2 • ARRASATE • Tel.: 79 89 34

JUBAR

ATEAK. S.L.®



- BURDINAZKO ATEAK
- ETA PERTSIANAK.
- AUTOMATISMOAK.
- KONPONKETAK.

Kataide industrialdea, 18 • ARRASATE
Tel.: 79 10 20 • Fax: 79 08 17

GoiHata S.L.

「日本語」

Japoniera, ingelesa, euskara, eta hizkuntza guztiak itzultzen ditugu

Alfonso X Jakintsua, 1 ARRASATE
Tel.: 943 - 79 25 75
Faxa: 943 - 77 13 90

Arrasate

LANAK

GENERAL GARRON

Noiz behinka, kalea itxita egongo da ordu batzuetan.

KONTZEZIÑO AUZOAN

Bidea asfaltatzen ari dira.

OBENERREKAN

Jolastokia berritzeko lanak.

TAKOLON


Biribil berria egiten ari dira.

AZATZA ETXEETAN

Monterron eta Musakola lotuko dituen pasealekua egiteko lanak.


GARIBAI - S. ANDRESEN

Semaforoen pareko zuloak estaltzeko lanak.



Biztanleak: 24.257
Eremua: 33 Km²
Garaiera: 211 metro

Eguraldiaren aurreikuspena



OSTIRALA 5



LARUNBATA 6



IGANDEA 7

Tarteka lainoak agertuko dira eta zaparradaren bat ekar dezakete. Tenperaturak gora egingo du.

Lainoak areagotuko dira egunean zehar eta euri tantaren bat edo beste bota dezakete.

Zerua oso lainotua egongo da. Tarteka euria egin dezake. Tenperaturak behera egingo du.

Ilargia



ilbetea

Ilbetea asteazkenean, ekainak 10, izango da.

Mezak

San Frantzisko
 (Frantzizkotarren elizan Parrokia berri arte)

Larunbatean
 09:00 (elebiduna)

Igandean:
 09:00 (euskaraz)
 10:00 (euskaraz)
 11:00 meza nagusia.
 12:30 (erdaraz)
 19:00 (erdaraz)

Uribarri
Larunbatean
 19:00 (elebiduna)

Igandean:
 11:30 (euskaraz)
 12:30 (erdaraz)

San Andres
Larunbatean
 19:00 (elebiduna)


Igandean
 10:00 (erdaraz)
 11:00 (euskaraz)
 12:00 (erdaraz)
 13:00 (erdaraz)

Santa Teresa
Larunbatean
 19:00 (elebiduna)

Igandean
 10:30 (erdaraz)
 11:30 eta San Isidron (euskaraz)
 12:30 (erdaraz)

Urkuluko uraren maila

%96,8



Distantziak

Arrasate									
121	Baiona								
690	579	Bartzelona							
57	170	620	Bilbo						
1.159	1.038	2.883	1.207	Brusela					
72	50	529	119	1.088	Donostia				
40	180	530	66	1.206	118	Gasteiz			
107	120	437	159	1.180	92	93	Iruñea		
391	519	621	395	1.556	469	351	407	Madril	
864	743	1.113	911	296	792	910	884	1.260	Paris



Jada ez daukazu zure aurrezkiak epe jakin batera lotuta izan beharrik.




Orain Euskadiko Kutxaren Ongizate Aurrezkiak duzu.

Ongizate Aurrezpenaren abantailak libreta arruntaren eta eperako libretaren aldean.

	Libreta arrunta	Eperako Aurrezkiak	Ongizate Aurrezpena
Interes handia	Ez	Bai	Bai
Eskuragarritasuna	Bai	Ez	Bai
Edozein kopuru sartzea	Bai	Ez	Bai

Aurrezteko sistema berriak ugaritu egin badira ere, aurreztaileen %50ek nahiago du ohiko Eperako Aurrezkiak, nahiz eta epearen eragozpena izan. Pertsona horiek orain Euskadiko Kutxaren Ongizate Aurrezkiak dute. Eperako Aurrezkiaren errentagarritasun, segurtasun eta erraztasun berberetzatzen jarrai dezaten eta, gainera, beren aurrezkiak askatasun osoz eskuratzeko aukera izan dezaten. Ongizate Aurrezkiak. Eperako aurrezkiak bezelakoa, baina eperik gabe.

Informa zaitez Euskadiko Kutxaren sukurtsaletan edo 901- 333 444 telefonoan.


CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Erantzun zuzena.

5 ostirala

■ ZINEA

Hard rain, Alai zineman, arratsaldeko 21:30etan.

■ MUSIKA GAZTETXEAN

Gaztetxean Eskarmiento, Ermuarrak eta Sin taldeek joko dute. Gaueko 22:00etan.

■ AZKEN FESTA

Arrasate Kirol Proiektuak azken festa antolatu du. Tradizioari jarraituz, bi ekintza antolatu dira. 10:00etan bizikleta irteera eta 12:00etan ikasturteko sari banaketa eta zozketa, Iturripen.

■ UDALAKO ARTETA
BASERRIAREN ALDE

Udala auzoko Arteta baserriaren aldeko jaialdia izango da Amaia antzokian. Gaueko 22:00etatik aurrera, Anje Duhalde, Mikel Markez eta Aitzol, Josune eta Edurne arituko dira. Eurekin batera, Egaña, Sarasua, Mañukorta eta Ainhoa Agirreazaldegi bertsoan arituko dira. Arrasateko Lore Gazteak eta Bergarako Xamatx dantza taldeak ere hartuko dute parte jaialdian. Hauekin batera, Ines eta Naiara trikitilariak arituko dira.

■ GORLARAKO IGOERA
AUTOMOBILENTZAT

Gorlarako VIII. Igoera jokatu da igande honetan. Goizeko 08:30etan itxiko da Gorlarako bidea eta bi txanda jokatu dira, goizeko 10:00etatik aurrera.

■ PEDRO GUENETXEA
MEMORIALA

Aretxabaletako txirrindulari lasterketa hau arratsaldeko 16:00etan hasiko da. Bigarren mailako kadeteak arituko dira.

7 igandea

■ ZINEA

Heredarás la tierra, Alai zineman, arratsaldeko 17:00, 19:30 eta 22:00etan.

■ GURUTZ SAINDAREN JAIA

Aramaion Gurutz Saindaren mendiko jaia ospatuko dute. 12:00etan meza. Gero erromeria egingo da, 18:00ak arte. Aixolako eta Arrixolako gazteriak antolatutako jai honetan taberna eta salda zerbitzua jarriko da.

8 astelehena

■ ZINEA

Heredarás la tierra, Alai zineman, arratsaldeko 19:00 eta 21:30etan.

9 asteartea

■ ZINEA

Heredarás la tierra, Alai zineman, arratsaldeko 19:00 eta 21:30etan.

■ ANOREXIA ETA BULIMIA

Anorexia eta bulimiaren inguruko mahai ingurua antolatu du Emakume Sailak. Saioa Monterronen izango da, 19:30etan.

6 larunbata

■ ZINEA

Heredarás la tierra, Alai zineman, arratsaldeko 17:00, 19:30 eta 22:00etan.




DEBA GARAIKO MANKOMUNITATEA

Diruzaintza eta kontabilitate orokorreko lanak egiteko **Ekonomi edo Enpresa Zientzietan diplomadun bat** kontratatu behar da 1998ko uztailaren 1etik 1999ko urtarrilaren 31ra arte

Eskariak eta gainerako agiriak ekainaren 10ean aurkeztu beharko dira, arratsaldeko 15:00ak baino lehen, Deba Garaiko Mankomunitatean.

Arrasate Pasealekua, 5 behea • ARRASATE •
Tel: 79 33 89 / 79 33 99




IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 79 99 61 • ARRASATE

Erdiko kale. 79 19 37



Ferrerías. 79 87 62

UGARTE

Industria hornidurak

Arrasate pasealekua
Tel.: 79 83 96 / 79 23 00
Faxa: 793412

10 asteazkena

■ LANEKO OSASUNA MINTZAGAI

Jesus Uzkudun CCOOko Lan Osasunaz arduratzen dena mintzatuko da CCOOen egoitzan. Hitzaldia arratsaldeko 15:15etan hasiko da.

■ CHIAPAS MINTZAGAI

Mexikotik bidali zituzten Ana Lopez Castillejos eta Julen Cobosek, Chiapasi buruzko hitzaldia eskainiko dute. Saioa Arrano Elkartean izango da, arratsaldeko 19:00etan.

■ HAUR DANTZARIEN EGUNA

Haur dantzarien eguna egingo da ekainaren 21ean. Hori dela eta, Lore Gazteak dantza taldeak Arrasatera etorriko diren haurrak etxeetan hartzeko deialdia zabaldu du. Interesatuak AED elkartean edo Hire liburudendan eman dezateke izena. Horrekin batera, zenbat haur hartu nahi diren ere esan beharko dute interesatuak.

■ 68KO MAIATZA GOGORATUZ

Zutik alderdiak 68ko maiatza gogoratzen duten zenbait dokumenturen erakusketa antoiatu du. Vicente Torres balentziarraren txostenak erakutsiko duen erakusketa, ekainaren

10etik 14ra izango da ikusgai. Garai hartako argazki, hormirudi eta idatzen bidez, iksleen borrokak, barrikadak, greba orokorra... ezagutzeko aukera izango dute ikusleek. Erakusketa Jai Zalen izango da, arratsaldeko 19:00etatik 21:00era.

■ PINTURA ERAKUSKETA

Ostiralean, ekainak 5, pintura erakusketa zabalduko da Harresi aretoan. Oraingoan Monterronen egin den pintura ikastaroaren lanak jarriko dira. Erakusketa astegunetan 18:00etatik 20:00etara eta larunbat eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara egongo da zabalik.

■ DONOSTIAKO ARRASATEARRAK

Donostian bizi diren arrasatearrek igandean ospatuko dute euren eguna. Donostian bizi diren 221 arrasatearrek jaso dute festarako deia.

■ ARRASATE MUSIKALEN EMANALDIA

Datorren ostegunean Arrasate Musikalek emanaldia eskainiko du Iturbide Egoitzan. Saioa arratsaldeko 18:00etan izango da. Abesbatza, balleta eta musika eskainiko dute, besteak beste.



ESKORIATZA-ARRASATE

Eguerdian aterako da Eskoriatzatik aurtengo Eskoriatza-Arrasate herri krosaren VI. edizioa. Oraindik izena eman ez dutenek, igandera arte dute denbora, epea lasterketa hasi baino ordu erdi lehenago itxiko da eta.

**Zure inbertsioak errentagarri egiteko,
utz ezazu estatuko lehenengo gestore
independienteak bidera zaitzan.**

<http://www.abasesores.es>

ABASESORES

Ondo inbertitzea denon esku dago

Santalaitz, 6
S. Lorentzo Industrialdea
Tel.: 943 - 76 54 35
20570 BERGARA

USTEAK USTE

Administrazioaren
hizkuntza

Astero-astero, Gobernu batzordearen eta noiz behinka udalbatzak egin beharreko osoko bilkuren deia jasozten dugu erredakzioan, gai ordena adieraziz.

Azken osoko bilkurako gai bat hauxe zen: "Propuesta de enajenación de local comercial sito en la planta baja...". Hori irakurri nuenean, berehala pentsatu nuen baten bati —edozein arrazoi tarteko— loka la kendu behar ziola udalak. Baina, kia. Han non hasten den EBko bozeramailea hitz egiten, salmenta horren kontra zeudela esanez. Zinegotzien arteko eztabaidak —testuinguruak— lagundu zidan gaia ulertzen, hitzak, "enajenación", besterik adierazten baitzuen.

Ez dakit zergatik sartu behar dituzten halako hitzak administrazio hizkeran. Edukia ilundu baino ez dute egiten.

Euskarazko itzulpena ere ez zen argi-
goa: "... beheko solairuan dagoen merkataritza lokala inorentzea..." esaten baitzuen.

Ez litzateke argi-
goa esatea "venta de local" edo "lokala saltzea"?

Joxe Aranzabal



Energia eolikoa

Vicente Alonso*

Energia iturri guztiek arazo handiak dauzkate. Beraz, ekologikoa ez gastatzea litzateke. Gauregun, esperientzia eta garapen teknologikoari esker, ekonomikoki energia eolikoa ohikoa bezain errentagarri bihurtu da. Baina zeharkako kostuak kontuan hartuko balira, hau da, zenbat kostatzen zaizkigun hondakin nuklearrak, euri azidoa, istripuak (heriotzak, gaixotasunak, kalte ekonomikoak), CO² isurketak, eta abar, energia eolikoa litzateke errentagarrietako bat.

Abantailak:

Ez du kutsadurarik eragiten; ez du hondakinik sortzen; agortezina da; hemen aurki dezakegu; menpekotasuna gutxitzen du; hazienda lokalentzat diru-sarrera oso inportanteak sortzen ditu; izaera modularra du; kentzeko aukera dago; oso segurua da; errentagarria da; energia mota honek beste edozeinek baino lan gehiago sortzen du; erregai fosilen kontsumoa gutxitzen du; horniketaren segur-

tasuna hobetzen du.

Desabantailak:

Nabarmen ikusten da: hau nahiko subjetoa da; eragina hegaztietan: datuen arabera, Danimarkan (4.000 haize errota) trafikoak sorgailuek baino berrogei aldiz hegazti gehiago hiltzen ditu urtero. Tarifan urtero 0,34 hegazti hiltzen dira haize errota bakoitzeko. Nafarroan 1997an kopuru hau 0,12koa izan zen. Linea elektrikoek eta euri azidoak ere hegazti pilo bat hiltzen dituzte; zarata: gaurko parke eoliko bat bisitatzen denean, atentzioa ematen du hango zarata txikiak; luraren mugimendua: ikatz zentralarekin lotuta dagoen mehatzagintzan, are gehiago mugitzen da; interferentzia

“
Energia eolikoaren
abantailak,
desabantailak baino
handiagoak dira
”

elektromagnetikoak ager daitezke komunikatzeko sistema batzuekin, baina hau ez da arazo larria; programazio eza; ezin da jakin noiz eduki dezakegun energia; istripuak: bes-tetan baino arrisku txikiagoa.

Energia eolikoaren desabantailak, beste energia iturrietan baino txikiagoak direnean, abantaila bihurtzen dira.

Espainan, (eta baita gure autonomia erkidegoan ere, ia energia guztia kanpotik ekartzen dugunez) elektrizitate eskaria, nola betetzen da? %34 nuklearrekin, %45 termikoarekin eta %20 hidroelektrikoarekin. Dauden energia mota guztiak energia eskaria betetzeko erabiltzen dira, beraz energia eolikoak orduko sortzen duen kw bakoitzak, kw hori zentral termiko batean ekoiztea ekiditzen du.

Gaur egungo errota berrien artean normalena den 600 kw.ko haize sorgailu bat (dorreak 40 metroko altuera gehi 20 metroko hegala) erabiltzen bada, urte batean 2.000.000 kwh atera daitezke. Honek, urte bakoitzeko, ikatz zentral batetik, hurrengo isurketa poluitzaileak saihestuko litzuzke:

Karbono dioxidoa	CO ²	2.000.000 kg
Azufre oxidoak	SO _x	38.000 kg
Nitrogeno oxidoak	NO _x	6.000 kg

Soilik CO² isurketa hau konpentsatzeko, 100.000 zuhaitz behar-ko lirategi! (haize sorgailu bakoitzeko).

* Ikerlaneko Energia departamentuko kidea.



Danona KARROZERIAK

Konponketak, txapa eta pintura

Musakola auzoa, 15 • ARRASATE • Tel.: 79 58 06

S. CARRASCAL S.L.

- Guk egindakoak:**
- Sukalde altzariak
 - Armairu enpotratuak
 - Trastelekurako armairuak

Fabrikan erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tel/Faxa: 79 01 82

BERGARA

1 Ipintzako txapelketa

Aste honetan hasi da Ipintzako futbol txapelketa. Edizio honetan bada berrikuntzarik, emakumezkoen taldeek jokatuko baitute lehen aldiz. Haiek eman zioten hasiera txapelketari, lehenengo partidak jokatuz. Hurrengo egunean gizonek hartu zuten txanda.

ANTZUOLA


2 Etxebizitza berriak

Antzuolako Udalak 30. eremuko etxebizitzaren eraikuntza kudeatzeko elkarte anonimo bat sortuko du. Horrela onartu zuen joan den asteartean udalbatzak. Zortzi eraikin egingo dira, guztira 50 bat etxebizitza. Udalak ohiko prezioetan baino merkeago salduko ditu etxebizitzak.

ARETXABALETA

3 Iñurrategitarrak etxean

Felix eta Alberto Iñurrategi



anaiek ongi etorri beroa jaso zuten joan den larunbatean herrira iristerakoan. Murruxo Mendizale elkarteko kideak eta atxabaltar ugari bildu ziren mendizaleen inguruan. Maiatzaren 22an, hainbat neke eta arazo gainditu eta gero,

Himalayako Daulaghiri mendia gailurrera iristea lortu zuten, Juanito Oiarzabal mendizalearekin batera. Daulaghirik 8.167 metroko garaiera du. Mendi hau Iñurrategitarrek igo duten bederatzigarren zor-tzi milakoa da.

OÑATI

4 Ibilaldia Urrexolara

Laixan elkarrekin antolatuta, Oñati ezagutzen ibilaldia egingo da datorren igandean, ekainak 7. Ibiltariak Oñatiko plazatik irtengo dira, goizeko 08:45etan. 09:15etan Olartera helduko dira. Ibilaldia egin nahi duenak plazara edo Olartera joan daiteke. Behin taldea elkartu eta gero, Urrexolara abiatuko dira, hango inguru ezagutzeko.

ELGETA

5 Pilotalekua margotu

Elgetako pilotalekuak itxura berria eskainiko du hemendik lasterrera. Ekainean ETBk handik zenbait partida emango dituela eta, pilotalekuko frontisa eta ezker paretako zati handi bat margotuko dira. Gas-tuak Oskarbi elkarteko pilota taldeak eta Elgetako Udalak ordainduko dituzte. Guztira 350.000 pezeta. Euskal Teletistikak ekaineko ostiral guztietan izango diren partidak grabatuko ditu. Aurtengo lau t'erdiko txapelketaren finala ere Elgetan jokatuko da.

ASESORIA ARRASATE

- Juridikoa
- Fiskala
- Laborala
- Zurich aseguruak
- BANKINTER

Erdiko kalea, 32 - 1. I
ARRASATE
Tel.: 943 - 79 01 47 • Faxes: 943 - 79 73 00

AUTOENPLEGUA ETA ENPRESA EKIMENARI BURUZKO IKASTAROA

Arrasateko Udalaren Enplegu Zerbitzuak enpresa ekimen berriak bultzatzeko ikastaro bat antolatu nahi du, ezaugarri hauen arabera:


Programaren helburuak: Ekimen berriak eta autoenplegua suspertzea: enpresa-kultura zabaltzea eta enpresa proiektu bat garatzeko formazioa ematea.

Nori zuzenduta: Autoenpleguaren bidea jorratzeko eta negozio-idea bat abian jartzeko asmoa daukaten promotoreei zuzenduta dago.

Zer eskeintzen da: 130 orduko ikastaro praktikoa bat promotore bezala prestatzeko eta negozio-idea proiektu gauzagarri batean bilakatzen laguntzeko.

Egutegia: 1998ko irailetik abendura, arratsalde, astelohenerik ostiralera. Interesatuta bazaude, edo berri gehiago behar baduzu, Arrasateko Udalaren Enplegu Zerbitzura hurbil zaitez

Eskabideak aurkezteko epea 1998ko ekainaren 30 arte. Tel.: 943 - 79 09 00

 ARRASATEKO UDALA

Enplegu zerbitzua

Portugaldarren etorkizuna kolokan

Arrasateko Udalaren Gobernu batzordeak Zaldispen bizi diren bi familia portugaldarrei hamabost eguneko epea eman go die handik alde egiteko. Gobernuak kideak Arrasateko Udaltzaingoa egindako txostenean oinarritu dira erabakia hartzeko. Agindu hau emateko arrazoi nagusienak dira portugaldarrek ez dutela Zaldispe garbi uzten eta euren furgoneta eta trasteekin apartatzeko lekuak gutxitu dituztela.

BAZTERKERIA SALATU

SOS Arrazakeriak udalaren jarrera eta, batez ere alkatearena, salatu zuen asteazkeko prentsaurrean.

Portugaldarrak herriko erroldan egoteko behar diren baldintza guztiak betetzen dituzte, baina erroldan sartzeko egin dituzten bi eskariak ez dute erantzunik jaso. Hori dela eta, udalak legearen kontra jokatu duela salatu zuten SOSekoek. Honen iritziz, bi familiak Europako hiritarrak dira eta hemen bizitzeko baimena dute, beraz erroldan sartzeko eskubidea ere bai.

Oraingoz udalak ez die portugaldarrei erabakia jakinarazi. Ordura arte adostasunik lortuko ez balitz ere, bi familiek Arrasaten segituko dutela adierazi zuten.

Datorren astean ateak irekiko ditu parrokiak



San Joan Bataiatzailearen parrokiako zaharberitze lanak hasi aurretik.

Datorren astean San Joan Bataiatzailea parrokiak ateak irekiko ditu eta hiru egun ez ikusgai izango da, argi guztiak piztuta eta irudi guztiak beren lekuan. Hori guztia ekainaren 13an, larunbatez, erakuntzaren kontsagrazioa egin aurretik.

Iturriotz kalekoak izan ezik, gainerako lanak bukatuta daude. Aste honetan irudiak jartzen ibili dira. Asteartean furgoneta bat joan zen Donostiako Elizbarrutiaren Museoa bost bat pieza ekartzera. Irudi gehienak, ordea, hemen zeuden, Bilbon konpondu eta gero.

BERRESKURATZE LANAK

Zaharberitze lanak direla eta, oso hondatuta zeuden zortzi-

-bederatzi bat lan berreskuratu dira eta zaharberitu. Gehienak ganbaretan egon dira urteetan, itoginek hondatuta. Tartean Uranga pintore bergararraren margolan bat. Honen konponketan bost milioi pta gastatu dira.

Aldaketarik handiena, hala ere, San Joan Bataiatzailearen irudiari dagokio. Aldarean zegoen irudia, XIX. mendekoa, kendu egingo da eta haren tokian jatorrizkoa ipiniko da, XVII. mendean egindakoa alegia.

BI URTE LEHENAGO

San Joan Bataiatzailea parrokiak zaharberitzeko lanak aurtengo Gabonak inguruan bukatuko dira, uste baino bi urte lehenago. Dena den, ordu arte itxaron barik, hil honen

13an, larunbatez, kontsagratuko da eta elizkizunak normal egiten hasiko dira. Ordu-rako irudi eta apainketa guztiak ipinita egongo dira. Kanpaiak ere ostiralean hasiko dira jotzen, festa eguna iragartzeko.

Jose Maria Setien Gipuzkoako gotzainak egingo du kontsagrazioa eta berak esango du ondorengo meza handia.

Arrasateko parrokiak zaharberitzeko asmoa 1992an hasi zen mamitzen. Orduan herritarrez osatutako batzorde bat eratu zen, proiektuaren nondik norakoak erabakitzeko. Lehen lanak, berriz, 1994an hasi ziren. Guztira ia 600 milioi pta. erabiliko dira zaharberitze lanetan.

**Monte
taberna**

Maalako arrabala, 11
Tel.: 79 20 56

beatriz

*oinetakoak
eta poltsak*

Erdiko kale, 11
Tel.: 79 14 33
ARRASATE

"PAL"

**burdindegia,
brikolage
eta tresneria**

Uribarri etorbidea, 3
Tel.: 79 31 99 ARRASATE

**FELIPE
MADINA
ZURAK**

Zarugalde, 40 ARRASATE
Tel.: 79 13 78



Udan
ere

Ongi etorri euskarara!

Ongi etorri Udal Euskaltegira!

1998ko udako ikastaroak

ESKAINZA: EUSKALDUNTZE, ALFABETATZE maila guztiak eta EGA. Mintzamina lantzeko ikastaroa • **ERRITMOAK:** egunean 5 ordu, goizez • Bekak eta diru laguntzak ditugu. Galde ezazu! • 16 urtetik gorakoentzat • **BULEGO ORDUTEGIA:** goizez: 10:00-13:00 • Arratsaldez: 15:00-18:00 • **IKASTAROAREN IRAUPENA:** ekainaren 29tik uztailaren 24ra • **MATRIKULATZEKO EPEA:** ekainaren 1etik 15era • **BARNETEGIA:** uztailaren 1etik 15era, ZERAINEN.



ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA

Arima Zuri plaza, 2 • ARRASATE • Tel.: 943-79 70 77 / 79 77 88

IKASTARO TRINKOAK ETA ERREKUPERAZIO IKASTAROAK



UDA HONETARAKO

Aprobetxa ezazu ondo aurtengo uda, zeure aisialdiaren tarte bat hizkuntza bat ikasteari eskainiz; konturatu gabe ingelesa, frantsesa edo alemanera hitz egiteko gai izango zara.

Uztaila
egunean 2 ordu

Hizkuntza bat gehiago,
muga bat gutxiago

HAUR ETA GAZTEAK
goizetan, 11etatik 1era

HELDUAK
arratsaldeetan, 4etatik 6etara

ALEMANERA
FRANTSESA
INGELESA



Olakua, 14
Te. 943 71 60 00
OÑATI

Araba Etorbidea, 4
Tel. 943 71 20 55
ARRASATE

Ikasleek multimedia baliabideak eta mediaketa "dohainik" erabiltzeko aukera dute.

Fagor Taldeak eta Emun koop. arrasatearrak elkarlanerako hitzarmena sinatu dute

Euskararen erabilera bultzatuko duen hitzarmena sinatu zuten Fagor taldeko zuzendaritzak eta Emun kooperatiba arrasatearrak joan den astelehenean. Emun kooperatibak, Ikerlan eta MCCko zerbitzuetan erabiltzen ari diren antzeko plangintzak diseinatu ditu Fagor taldeko enpresa guztientzat.

Juan Jose Ansoategi Fagorreko lehendakariak eta Jabier Gantxegi lehendakariordeak gain, taldeko enpresen lehendakari guztiek sinatu zuten hitzarmena. Beraz, Fagor Elektresnak, Fagor Industrial, Copreci, Fagor Elektronika, Zerbitzu orokorrak, Ederlan, Fagor Automation, Arrasate eta Fagor Sistemak sartuko dira plangintzan.

Juan Jose Ansoategi Fagorreko lehendakariak adierazi zuenez, aldaketa handiak ekarriko ditu hitzarmenak. "Aldaketa handia izango da kooperatiban, euskara lan egiteko hizkuntza bihurtuko baita. Gaur egun, ingelesa edo ale-



Julen Arexolaleiba, Juan Jose Ansoategi eta Jabier Gantxegi sinatze ekitaldian.

mana ikastea beharrezkoa da kooperatibarentzat, baina euskaraz hitz egitea ere bai. Gure filosofiaren oinarria langileen parte hartzea da eta euskaraz hitz egitea, kooperatiban benetan parte hartzea da".

Plangintzaren bidez lortu nahi den helburua argia da:

eguneroko lanean, idatzizko zein ahozko komunikazioetan euskara erabiltzea.

Lan horretan euskaldunek izango duten erantzukizuna azpimarratu zuen Julen Arexolaleiba, Emun kooperatibako lehendakariak. "Lanean elkarren beharra duten lagunak,

euren borondatez noizean behin elkartuko dira. Eurok erabakiko dute eguneroko harremanetan erdaraz egin izan dituztenak ze neurrian eta ze abiaduran joango diren euskaratzen. Ez da teknikari baten inposaketa izango. Langileek hartu beharko dituzte erabakiak".

OPEL

OPEL ASTRA BERRIA



TAKOLO AUTOAK

Zatoz OLA eta TAKOLO kontzesionarioetara eta probatu

Araba Etorbidea, 3 Eskatu Pabilioia Tel.: 79 05 86 ARRASATE

astea bi hitzetan

■ **Enpresa jardunaldiak**
Mondragon Unibertsitateak Humanitate eta enpresari buruzko I. Jardunaldiak egin zituen Eskoriatzako Irakasle Eskolan. Joan den ostiraleko jardunaldietan, Xabier Rete-gi Industria sailburuak eta Ignazio Lakunza MUko errektoreak berba egin zuten, besteak beste. Gairik nagusienak enpresaren eraldaketa eta euskal eredia izan ziren.

■ **Haur abesbatzak**
Amaia Antzokia 800 haur baino gehiagoren kantuekin

bete zen larunbatean. San Frantzisko Xabier Ikastolak Deba Garaiko Eskola Arteko Abesbatzen Topaketak antolatu zituen hamai-kagarrenez. Guztira 17 taldek parte hartu zuten haur abesbatzen jaialdi honetan.

■ **Erretiratuen eguna**
Jubilatu egunaren XXXV. edizioa arrakastatsua izan zen. Larunbat eguerdian meza entzun eta gero, 1.200 lagun baino gehiago elkar-tu ziren Musakolako kirol-degian bazkaria egiteko.

Dantzan eta tertulia atsegi-nean igaro zuten arratsaldea.

■ **Brigadak Ameriketara**
Ertamerikara joateko brigadak antolatu dituzte. Aurtengo helbideak Kuba, Guatemala, Mexiko eta Nikaragua izango dira. Joan nahi dutenek alde zuretik ikastaro bat egin beharko dute. Brigadetara joateko, Donostiako 340 404 edo Gasteizeko 945 281 193 telefonotara deitu lehenbailehen. Brigadistak uztailaren eta abuztuaren irtengo dira.

“ Fernando Maura PPko parlamentarioak kritikatu egin zuen atzo Jabier Rete-giren lana. Aurpegiatu egin zion ‘ordainsari politikoa’ ordaindu izana Mondragon Kooperatiba Korporazioari emandako diru laguntzengatik, honek ‘Eusko Jaurlaritzaren diru laguntza larregi behar ez dituenean’”.

DV,
1998ko maiatzaren 29



LEHENENGO HARRIA

A ita Menni ospitalak eraikin berria izango du. Lehen harria jartzeko ohorea Roman Sodupe aldu nagusiak izan zuen. Gainera, Arrasateko Udalak seme-alaba kutun izendatu zituen Aita Menni eta San Juan de Dios ordenak.

GASTON Y DANIELA

GASTON Y DANIELA
Tapizeria • Moksetak • Alfonbrak

GASTON Y DANIELA

GASTON Y DANIELA

GASTON Y DANIELA

Alfonbra eta oihalez gain, haur eta gaztetxoentzako altzari sail berria topatuko duzu!

GASTON Y DANIELA

Zatoz guregana!

GASTON Y DANIELA

Kruz Gallastegi, 3 • BERGARA • Tel: 943 - 76 07 37

ERRETIRATUEN EGUNA

Jubilatu egunaren 35. edizioa arrakastatsua izan zen. Larunbat eguerdian meza entzun eta gero, 1.200 lagun inguru elkartu ziren Musakolako kiroldegian bazkaria egiteko. Dantzan eta tertulia atseginean igaro zuten arratsaldea.



UDALEKUETARA!

Txatxilipurdi elkartea badabil udalekuak prestatzen. Dagoeneko, 60 begiralek eman dute izena, Arrasaten, Garaion, Nafarroan, Orion eta

Andaluzian egingo diren udalekuak lan egiteko. Umeez primeran partidutela argi dago, baina hauek ere...

MENDIXOLA STUDIO

Mendixola hezkuntza zentruko lagunak dituzue argazkikoak. Miguel, Asier, Jose Mari, Rikardo, Jose Anjel eta Enekok film labur bat egin behar dute eta ARKOn izan ziren ATBren ekipo teknikoa ezagutzen. Zorte on zuen filmarekin eta ea estreinura gonbidatzen gaituzuen!



GAMMA

- ELEKTROLOGIA ZENTRUA
- BEHIN BETIKO DEPILAZIOA

Aurpegi eta gorputzerako tratamendua • Doaneko kontsulta
Maalako Errabala, 17, 1.A • ARRASATE • Tel.: 79 51 25



LOGOPEDIA
ZENTRUA
ARRASATE

Logopedia eta psikologia tratamendu kliniko eta hezitzaileak haur eta helduentzako.

Erdiko kale, 37 - behea
Tel.: 79 79 46 • ARRASATE

LANEAN ERE EUSKARAZ

Polmetasako langileak lanean euskaraz egiteko ahaleginetan dabilta. Batzuk ikasten ari dira eta beste batzuk Euskalan elkartearen bazkide egin dira. Ikasleak eta bazkideak, Lizeaga sagardotegira joan ziren afaltzera. Lanetik kanpo, giro jatorrean ere euskara erabiltzeko.



50 URTE BARRU ZER?



Eskualdeko ikastetxeetan zaborra aztertzeke kanpaina hasi zen joan den urtarrilean Udalako Ingurugiro Eskolak eta mankomunitateak bultzatuta. Ordutik hona, 6. mailako neska-mutikoez zaborrak sortzen dituen arazoak eta horien irtenbideak aztertu dituzte. *Gure herria 50 urte barru...* lehiaketan hartu zuten parte eskola guztietako ikasleek, eta San Vitorreko 6. C taldeak eraman zuen lehen saria. Bizkar zorro ekologikoak eta eskolarako liburu bilduma jaso zuten saritzat. Zorionak guztioi!

Spek
Denda



Iturriotz, 19
(Herriko plaza) ARRASATE

BiRiBiL

**Edari eta tabakotan
espezialistak**

Zarugalde, 35 • Tel.: 79 09 53 • ARRASATE

Elizatik edo zibiletik

“Nik, Uria, hartzen zaitut zu, Sendia, nire senartzat eta hitz ematen dizut leial izango natzaizula, zorionean eta ezbeharrean, nire bizi guztian zehar”. Nork ez du ezagutzen esaldia? Baina, zenbat lagun daude hori esateko prest?

Arrasaten jaitsi egin da azken urteotan ezkondu diren bikoteen kopurua. Orain dela bi urte, 116 bikote ezkondu ziren. Iaz, berriz, Arrasaten bertan, 52. Hala ere, badira Arantzazura edo Dorletara ezkontzera joaten diren arrasatearrak. Noski, senar-emazte berri horiek ez daude Arrasateko epaitegian jasota.



Jose Luis eta Marijo apirilaren 4an ezkondu ziren zibiletik.

Maiatzera bitartean 60 bikote ezkondu dira aurretan Arrasaten. Iaz 52 izan ziren. Zenbakiak diotenez, iaz baino jende gehiago ezkonduko da aurretan. Zenbaki hau nahiko aldakorra izan da azken hamazazpi urteotan. 1981etik 1996ra bitartean urtean 120,4 ezkontza egin dira, batez beste.

Arrasaten elizatik ezkontzen diren gehientsuenek Musakolako San Isidro eliza hautatzen dute abadearen bedeinkapena jasotzeko. Badira, hala ere, neskaren auzoko eliza hautatzen duten bikoteak ere. Hori egin zuten, adibidez, Miriam Iriak eta Patxi Bengoak. Garagartzako elizan ezkondu ziren. Miriam Garagartzakoa da eta eliza neskak hautatzen duenez, Patxi amore eman behar izan zuen eta Miriamek aukeratu bezala, Garagartzan ezkondu. Patxi oso argi azaldu zizkidan elizatik ezkontzeko arrazoiak: “Apur bat sinestu egiten duzu-

lako; beste apur bat ohitura-gatik; eta azkenik, apaiza oso jatorra delako”.

Jesus Mari Perezek eta Marijo Morenok, ostera, zibiletik ezkontzea erabaki zuten. Eurek diotenez, “elizarekin ez dugu harreman askorik eta ez zuen zentzurik gauzak horrela, elizatik ezkontzea. Gainera, etxean ere ez genuen presio handirik”.

Elizatik edo zibiletik, azkenean gogoan gelditzen dena da festagiroan ospatutako egun berezi hori. Eta horretan bat etorri dira bai Jesus Mari eta Marijo bai Patxi eta Miriam ere. Laurek, “modu berezi eta ahaztezinean gogoratzen” dutela diote. “Egun hori berehala pasatzen da, baina hila-

betez egunero-egunero gogoratzen duzu: bidaia hamabost egun, itzulitakoan argazkiak, etxea... ezin duzu ahaztu”, dio Jesus Marik.

EZKONTZA ALA NEGOZIOA?

Ezteiak negozio hutsa direla esan ohi da askotan. Baina une hori bizitzea tokatu zaienek ez dute gauza bera esaten. “Agian bidaia ordaintzeko dirua batu ahal izango duzu, baina ez dira, ez, negozio”, esaten zuten Jesus Marik eta Marijok. Bi gazte hauek joan den apirilaren ezkondu ziren. “Oso egun berezia izan zen. Beste gauza batzuen artean, ezkondu gintuen epailea gure lagun taldekoa zelako. Gainera, bere lehen ezkontza izan zen”.

Ezteiak, besteak beste, egin beharreko gastuagatik ezagutzen dira. Gonbitekin hasi eta jantziak, eraztunak, bazkaria, orkestra, ile apaindegia, argazkiak, bidaia, lorak, gonbidatuei banatzen zaizkien opariak... Gaur egun eztei batzuetara joateko gonbita jasotzen duenak egun horrek eragin behar dion gastuaz gogoratzen da berehala. Ez da, ez, egunero egin daitekeen gastua.

Jose Luisek dioen bezala “menu merke bat jarriz gero eta bidaia ez baldin bada oso garestia, agian zertxobait irabaz zenezake. Aldiz, bidaia exotiko bat antolatzen baldin baduzu, seguraski lortutako ditu gutxi hori gastatuko duzu”. Marijok ere bazuen beste teoria bat ezkontza egunean dirua irabazteko. “Jantzia eta bazkaria etxekoek ordaintzan badizute, ziur dirua egiten duzula”.

“Jaiki bezain laster, leihotik begiratu eta zer nolako eguraldia dagoen jakin nahi duzu” (Miriam)

bizi guztirako

URDURITASUNA NAGUSI

Ezkontza egunean ezkongaiak, hauen gurasoak, familiartekoa-
ak, lagunak, denak izaten dira
urduri. Jose Luisek gogoratzen
duenez, "bezperan ez duzu
lorik egiten, hurrengo egune-
an urduri egon behar zarela
pentsatzen. Berriro ezkondu
beharko banintz, ez nintzate-
ke ohean geratuko. Niretzat
hori izan zen txarrena".

Miriamek eta Marijok goi-
zean goiz jaiki beharra gogo-
ratzen dute. "Jaiki bezain las-
ter, leihotik begiratu eta nola-
ko eguraldia egiten duen jakin
nahi duzu. Nire kasuan, euria
ziharduen eta apur bat urdu-
ri jarri nintzen, baina egin
beharreko guztiek lasaitu egi-
ten zaituzte", dio Miriamek.

Ezkontzako unerik bere-
zienean, hau da, ezkonberriek
baietza eman behar dutenean,
ez zuten arazorik izan gure pro-
tagonistek. Baina ospakizun-
naren ostean, elizatik edo uda-
letxetik ateratakoan, berriz
agertu ziren nerbioak. "Jendea
zure zain dago; dantzariak
dantzarako prest; arrosa ger-
tu dago... Hori guztia ahaztu
egiten da bazkalosterako. Baz-
kalostean jadanik inor ez da
gogoratzen ezkonberriez,
ordura arte bezala. Jose Lui-
sek dioen moduan, "holako
egun batean denak datoz ondo
pasatzera eta ezkondu eta gero
oso lasai egoten zara. Dant-
zaldia hobeto joaten da, jen-
dea gusturago egoten da eta
jende ezezaguna elkarrekin
hitz egiten ikusten duzu, dan-
tzan... Une hori oso polita da.
Giroa berotzen joaten. Agian,
unerik politena dela esango
nuke".



Patxi eta Miriam irailaren 13an ezkondu ziren, elizatik

OHITURAK ETA SINESKERIAK

Ohituraz neskak hautatzen
du eliza. Kasu gehienetan,
neskaren auzoko eliza izaten
da. Baina badira beste ohitua-
ra batzuk ere erritual bihur-
tu direnak. Neskak hiru erri-
tual bete behar izaten ditu zor-
te ona izateko: zerbait urdi-
na, zeozer zaharra eta laga-
tako zerbait eraman behar du.
Miriamek lehengusinak opa-
ritutako liga bat zuen ezkon-
tza egunerako, baina ahaztu
egin zitzaion. Baina Mari-
jok, eraman zuen liga; urdi-
na gainera! Ezkonberrien tar-
taren panpina hurrengo
ezkondu behar den bikoteari
oparitzen zaio. Jose Luisek eta
Marijok eurak ezkondu zitue-
nari oparitu zioten eta Miria-
men eta Patxik, berriz, sen-
diko bati. Une berezia izaten
da. Askotan oparia jasotzen
dutenek ez dute jakiten beraiei
emango ditenenik.

Marijo Deogracias ■

Ezkontzen bilakaera Arrasaten




Emaitzak

Aldibi 4 - Estrella Taberna 3
Irati STS 2 - Naranja Mec. 1

Hurrengoak

Larunbata, 6
3. eta 4. tokiak
17:00 Estrella Tab. - Naranja Me.
Finala
18:00 Irati STS - Aldibi



Aldibi-Irati STS finalean

Hiru gol sartu zizkioten Aldibi taldeko atezainari. Hala ere, izan zuen partidari zehar bere taldekideak jokatzen ikusteko aukera.

Laburrak

■ IRATI STS-ALDIBI

Aurtengo Zaldibarko futbito txapelketako finala Irati STS eta Aldibi taldeek jokatuko dute. Datorren larunbatean izango da final handia. Arratsaldeko 17:00etan Estrella taberna eta Naranja Mecanica taldeek, 3. eta 4. tokiak izango dituzte jokoan. 18:00etan finala izango da. Aurrez aurre Irati STS eta Aldibi taldeak. Txapelketako partidak hortxe amaituko dira, baina jaiak aurrera egingo du. Lehenengo sari banaketa.

Gauean afaria izango dute finalista guztiak. Hirurogei bat lagun bilduko dira Sara askaldegian.

■ ALDIBI-ESTRELLA TABERNA

Finalista txapelketako fabritoetako bat izan zen. Aldibi taldea Estrella tabernaren aurka aritu zen larunbatean. Aldibik 4 eta 3 irabazi zion Estrella Tabernari. Aldibik final erdietako gol gehienak lortu bazituen ere, gehiago sartzeko aukera izan zuen. Nor-

gehiagoka bere kontrolatu zuten, baina azkenean lau punturekin konformatu behar izan ziren. Hala ere, eurak izango dira, Zaldibarko txapelketako finala jokatuko dutenak.

■ NARANJA MECANICA-IRATI STS

Beste finalista Irati taldea izango da. Iratik Naranja Mecanica taldea kanporatzea lortu zuen. 2 eta 1 irabazi zuten Iratikoek. Nahiz eta Naranja Mecanica zen txapel-

ketako finala jokatzeke talde faborittoa, Irati taldea gogor aritu zen eta garaile ateratzea lortu zuen. Luzapena behar izan zuten Iratikoek norgehiagoka irabazteko. Bana ziholazela amaitu zen norgehiagoka eta kanporaketa partida bakarrera zenez, luzapena jokatu behar izan zuten. Azkenean Jon Iraolak garaipeneko eta finalerako txartela ekarri zien gola sartu zuen eta Irati STSk 2 eta 1 irabazi zion Naranja Mecanica taldeari.

Final erdiak abian

Uribeko futbito txapelketa final erdietara iritsi da. Bihar, larunbata, jokatu dira txapelketako azken aurreko norgehiagokak. Partidak eguerdian izango dira, arratsaldean Zaldibarko finala jokatu da eta. Eguerdian lau talde arituko dira finaleko txartela lortu nahian. Batetik P3000 eta Komando Alpargat. Bestetik, Iturripe Bn, Dribling eta Lontxo Taberna.

Faboritoak

Larunbatean final erdietan izango diren lau taldeetatik badira finalean egoteko aukera gehiago dituzten taldeak. P3000 eta Dribling taldeei buruz ari gara. Hala ere, eta finalean egoteko gogoak eraginda, ez da erronka erraza izango biharkoa. Hori dela eta, norgehiagokak amaitu arte ez da jakingo nortzuk diren finala jokatu dutenak, datorren asteko larunbatean, ekainak 13.

Uribe auzoa txapelketa

Emaitzak

P3000 6 - Bar Nuevo 4
Kom. Alpargat 4 - Milagro Bau.
Dribling 8 - Kamasutra 2
Lontxo Tab. 5 - Borrock & 2

Hurrengo partidak

Final Erdiak
Larunbata, 6
Iturripe A
12:00 P3000 - Kom. Alparga.

Iturripe B
12:00 Dribling - Lontxo Tab.

Bonba taldie sari banaketan

Larunbatean banatuko diren sarien artean, finaleko jokalaririk onenak ere bere oroi-garria izango du. Saritu honen izena Bonba Taldiek erabakiko du eta eurek banatuko dute saria. Irabazleak ez dauka zertan talde garaileko izan beharrik. Aste osoan zehar Arrasate Kirolak dendan ikusgai egon diren sariak banatuko dituzte bihar. Sari banaketa

Zaldibarko finalaren ostean izango da. Joan den astean Pepelus taldeak sari berezia jasoko duela aurreratu genizuen. Eta ez genbiltzan erabat gaizki. Baina Pepelus taldeak jasoko duen saria ez da txapelketa gehien jokatu dituen sariarena, baizik eta talderik zaharrenari ematen zaiona. Zorionak beraz, Pepelusi eta beste saritu guztiei!

Afari mundiala final ostean

Urtero legez, afaria egingo dute Zaldibarko finalistek. Antolatzaileek esan digutenez, hirurogei bat lagun biltzeko asmoa dute. Sara askaldegian egingo dute afaria eta ez da edonolako izango. Hasteko jokalaria, antolatzaile eta bestelako gonbitatuek, urdai azpikoa, pateak eta fritoak

izango dituzte. Bigarren platera hautatzeko izango dute, edo gose handia baldin bada, biak jateko aukera izango da. Txuleta ederra edo legatza laban; bakoitzak nahi duena. Antolatzaileek esan digutenez, ez dute erantzukizunik hartuko, afari ostean gerta dai-tekeenaz.



Lan eskaintza

ARKO • Arrasate Komunikabideak

ATBko arduraduna

Baldintzak

- Euskara idatziz eta ahoz ondo menperatzea
- Ikus-entzunezko teknikaria izatea

- Kazetaritza ezagutzea
- Kanpoko harremanetarako gaitasuna izatea
- Gida baimena eta autoa edukitzea

Curriculumak aurkezteko epea EKAINaren 11n bukatuko da.

Curriculumak ARKOk Administrazio bulegoan jasoko dira

Otalora Lizentziatua, 31 • 20500 ARRASATE (Gipuzkoa)

Tel.: 79 02 26

MCC: ekitaldi ona iazkoa

MCCko arduradunak pozik agertu ziren iazko jardueraren emaitzak jakinarazi zituztenean. Bi arrazoi nagusi azaldu zituzten MCCren hazkundea agertzeko orduan: Espainiako ekonomiaren bilakaera ona eta taldearen barne kudeaketan egindako hobekuntzak.

Industria eta banaketa taldeen salmentak 726.706 milioi pta.koak izan ziren, 96an baino %15 handiagoak. Nazioarteko salmentak, ostera, 208.788 milioi pta.koak. Industria taldea %18 inguru hazi zen eta nazioarteko salmentak, salmenta guztien %45. Banaketa taldeak, Eroskik, %13ko hazkundea izan zuen. Talde hau izan zen Espainiako merkaturako operadore nagusien artean bilakaerarik onena izan duena. Enpleguari dagokionez, bestalde, korporazioak 2.434 lanpostu sortu zituen iaz. Gaur egun, MCCk 37.562 langile ditu.

Iaz izan zen beste jazoera bat, korporazioan eragin handia izan zuena: Mondragon Unibertsitatearen jaiotza.


Taldearen dinamika areagotze aldera, MCCk lankidetzeta hitzarmenak sinatu zituen hainbat gobernu eta unibertsitaterekin. Horrez gain, MCC Garapena sortu zuen, enpresak sustatzeko sozietatea. Honek Eusko Jaur-larritza eta MCC ditu eragile nagusi.



Gaur egun MCCk 37.562 langile ditu.

MCC 1997an (milioi pta.tan)

	1996	1997	Aldaketa iaztik %
MCCko aktibo osoa.....	1.462.176	1.541.621	4
Euskadiko Kutzaren baliabideak.....	732.381	836.029	14,2
Lagun Aroko ondare funtsa.....	200.274	238.875	19,3
Industria arloko salmentak.....	291.866	343.962	18
Industria arloko nazioarteko salmentak.....	129.231	156.037	20
Industria arloko inbertsioak.....	17.690	25.791	46
Banaketa arloko salmentak.....	338.032	382.744	13
Banaketa arloko inbertsioak.....	26.017	33.079	27



MARKO-JARTZEAK
ALDEDI

Biteri, 8 • ARRASATE
Tel.: 79 13 05 • Faxa: 79 13 84

M
ARENAZA

Altzariak
Diseinua
Apainketa

Bizkai, 1 • ARETXABALETA
Tel.: 79 08 07



TABIRA

Dietista • masajista
psikologoa

Munar, 8 • ARRASATE
Tel.: 79 73 54



Arrasateko OSASUN GIDA

AKUPUNTURA

- INTEGU (Masajea, Osteopatia) Iturriotz kalea, 10 -1 ☎77 13 34

DERMATOLOGIA

- CRISTINA GARCIAINDIA. (Udalaitz Mediku-Zentroa) Ferrerias, 56 behea ☎79 44 22

GAIBERRITZEA-ERREHABILITAZIOA

- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1 ☎77 14 72

ERREUMATOLOGIA

- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar, 1-1 ☎77 00 40
- JUAN RAMON ARANDO. Erdiko kale, 22 -1 ☎79 72 16

FISIOTERAPIA

- ANDONI ETA MARIA BASTERRETxea ERREHABILITAZIO ZENTRUA Olarte 43 Bis ☎77 03 96

LOGOPEDIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kale, 37 ☎79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ☎79 48 77

MASAJEAK

- EUGENIO RAMOS Bizkaia Etorbidea, 12- 2 Esk ☎77 06 22
- JOSE LUIS ABUIN San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai) ☎77 01 33

ODONTOLOGIA

- ADUR ODONTOLOGIA INSTITUTU MEDIKUA Iturriotz, 35 ☎79 95 60
- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 17-1 Ezk ☎79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea ☎79 71 90
- GIPUZKOAKO ODONTOLOGIA ESPEZIALITATEEN ZENTRUA Iturriotz, 7 Bis ☎79 73 88
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7- 1 ☎79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsalde) Alfonso X. Jakintsua, 5 ☎79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3- 1.-B. ☎77 12 63

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerias, 56-Behea ☎79 44 22

OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño, 6 ☎79 25 98
- LARRAÑAGA OPTIKA (Optika eta optometria) Juan Carlos Guerra, 1 ☎79 29 95

ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPEDIA Kontzeziño, 2 ☎79 89 34

OSTEOPATIA

- NEREA BENGEOA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Azoka kalea, 4 (Mobila) ☎989 58 66 89

OTORRINOLARINGOLOGIA

- ZULUETA ETA NAVARRO Dreak (Arratsaldetan). Zerkaosteta, 17 behea ☎79 20 18

PODOLOGIA

- AZKARATE MORRAS Uribarri etorbidea, 5 behea ☎79 53 63

PSIKOLOGIA

- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 ☎79 88 16
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ☎79 48 77
- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko Kale, 37 ☎79 79 46

UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaitz) Ferrerias, 56 ☎79 44 22

Mondra gazteen pitxitxia

EKAIN GARIN

“Jaurti eta barrura sartzan bada, hobeto”

— Ze talderi sartu diozu gol gehien?

— Mutrikuren aurkako partidari zazpi gol sartu genituen; nik lau. Guztira hogeita bi sartu ditut.

— Nola joan da denboraldia?

— Nahiko ondo, besteak baino hobeto aritu gara. Bi partida baino ez ditugu galdu, nahiz eta biak segidan izan diren.

— Datorren urtean zer?

— Jokatzan segituko dut, baina beste urtebete baino ez. Gero ikusi egin behar talde handian jartzen garen edo kalera bidaltzen gaituzten.

— Aurrelaria izan zara beti?

— Iaz hasi nintzen aurrelari. Bestela erdilari edo bien erdian aritu izan naiz.

— Aurrelari izateak ardura handia eskatzen du?

— Ez, baina batzuetan, partida gaizki doanean eta, gainean egon behar zara. Hala ere, gola sartzan ez bada ere, ez da ezer gertatzen.

— Baduzu jokaldi berezirik?


— Ez, irteten dena egiten dut. Baloia ondo datorrenean jaurti eta barrura sartzan bada, hobeto. Baina ez, gehienetan datorrenera jokatzan dugu.

— Golkak ezkerrekin edo eskuinekin sartzan dituzu?

— Ezkerrekin gehiago sartu ditudala uste dut, baina ez naiz ezkertiarra. Gehienetan parean tokatzen denarekin jotzen dut baloia.

— Ze talderi sartuko zenioke gola gustura?

— Bergarari edo. Beti izan da kontra-koa... Gainera, Bergararen kontra izan zen galdu genuen lehen partida.



ATLETISMOA Lehen mailatik kanpo



Lehen mailako taldeko Euskal Herriko txapelketan parte hartu zuen Arrasate

Kirolak Atletiko taldeak. Emaizta nahiko onak lortu zituzten joan den larunbatean Anoetan jokatuako txapelketa honetan. Baina Atletiko taldeko kirolarien gaztetasunak ezin izan zuen beste taldeen esperientzia gainditu. Mondragoetarrak 7. tokian gelditu ziren, 59 punturekin. Lehenengo Euskal Herriko Unibertsitatea taldea izan zen, 143 punturekin. Arrasatearrekin batera Barakaldo Atletiko taldea jaitsiko da bigarren mailara. Jonathan Perezek 3,80 m.ko pertikajauzia egin zuen. Perezek ia-ia gazte mailan Espainian dagoen gutxieneko jauzia baino 20 zm. gutxiago. Unai Sarabiak bestalde, 22"42ko marka egin zuen 200 m.ko lasterketan.

PILOTA Txapelketak bailaran



Asteburuan haur eta gazte mailako txapelketak hasiko dira Oñatin eta Aretxabaletan, hurrenez hurren. Larunbatean haurren txanda izango da. Oñatiko binakako pilota txapelketan arituko dira Arrasateko bost bikote. Aretxabaletako gazte mailako eskuz binakako txapelketan, berriz, Arrasateko bi bikote arituko dira. Lazkano-Belategi eta Alzelai-Arostegi izango dira Aretxabaletan Arrasate ordezkatzen.

Bestalde, beteranoen mailako txapelketa ari dira jokatzan Zubillaga anaiak. Joan den asteburuan 22-14 irabazi zieten Ezpeleta eta Asierri. Bi

orduz pilotaka aritu ondoren, garaipena lortu zuten. Orain arte, txapelketako neurketa guztiak irabazi dituzte. Zubillagatarrek taldeko azken norgehiagoka jokatu dute datorren igandean. Oses-Mugerza izango dituzte aurrez aurre, goizeko 10:00etatik aurrera.

FUTBOLA Mondra preferenten



Denboraldian zehar nahiko ondo aritu bazen ere, preferente mailako Mondra taldeak promozioa jokatzeko aukera guztiak galdu zituen joan den igandean. Oñatin jokatu zuten derbyan 1 eta 0 galdu zuten arrasatearrekin. Mondraren hamaikako jokalaririk berriak aritu ziren baina, txantxikutarrek ez zuten barkatu. Penalti baten ondoren, Mondrak promozioa jokatzeko izan zitzakeen aukera eskasak desagertu egin ziren. Datorren denboraldian zorte hobearen esperoan gelditu beharko dira.

Futbolzale arrasatearrek, hala ere, badute zein txalotu. Gazte mailako taldeak, 2 eta 1 irabazi zion Aloña Mendiri asteburuan. Partida polita izan zen Atxabalpen jokatu zena. Sailkapeneko lehen tokian egoteak ematen duen lasaitasunarekin aritu zen hamaikako arrasatearra. Datorren astean A taldeko lehenengo tokian sailkatu den Herriaren aurka jokatu dute. Gazte mailako kopako garaila erabakiko du Orion jokatu den norgehiagoka honek. Partida larunbatean, arratsaldeko 16:30etan izango da.

Nazional mailako nesken taldea ere Atxabalpen aritu zen larunbatean. Esti Loitiren neskek Copako partida izan zuten Añorgaren aurka. Arrasatearrekin gola egin zieten, baina azkenean 1 eta 2 galdu zuten.

Arrasatearrak Frantzian

Hotel Mondragon eta CIGek babesten duten haurren Arrasateko futbol taldea Caderoussen izan zen lagun arteko txapelketa batean parte hartzen. Caderoussen 50. urteurrena zela eta, futbol partidak antolatu zituzten eta Arrasateko talde hau gonbidatu.

Arrasatek bi norgehiagoka jokatu zituen Frantzia aldean. Lehenengoan 2 eta 0 irabazi zieten gonbidatzaileei. Bigarren neurketan Jonquiers taldearen aurka aritu ziren eta arrasatearrek aurreko partidaren emaitza errepikatu zuten.

Arrasatearren bidaia Caderoussen taldearen 50. urteurrenako ospakizunak zirela eta egin zen. Arrasatear gazte



Caderoussen izan ziren haur mailako arrasatearrak

hauek, euren gurasoekin joan ziren Frantziara. Gazteak futbolearen bitartean, gurasoek turismo egiteko aukera izan zuten. Norgehiagoken

ostean, Arrasateko espedizioa beste 600 bat lagunekin ospatutako festan egon ziren. Avignonon jokatu beharreko txapelketa parte hartzeko

aukera ere bazuten haur taldekoek. Baina horretarako dirua behar izaten dela eta, horretan ari dira jokalarien laguntzaileak.

Parapentean Urkulura

Ikarus parapente taldeak Kurutzeberritik behera botatzeko deialdia egin du iganderako. Eguraldiak laguntzen badu eta Iparraldeko haizeak joz gero, Kurutzeberritik Urkulu aldera egingo dute jauzi 12:00ak eta 13:00ak aldera. Aldiz, haizeak Hegoaldetik jotzen badu, Udalaix

edo Aloñamendi aldera egingo dute hegan. Iaz ere, honelako topaketa antolatu zuten, baina ez zuten zorterik izan eguraldiarekin. Eguerdiko 12:00ak aldera hasiko dira jauzi egiten parapenteekin. Iazko partehartzea errepikatuz gero, hirurogei bat lagun bilduko dira Kurutzeberri-

ko gailurrean. Irun, Altsasu, Gasteiz, Arrua, Oñati eta Arrasateko parapente zaleak bilduko dira. Ondoren, bazkaria egingo dute Saran. Antolatzaileek adierazi digutenez, "bazkarira nahi duten guztiak ager daitezke, nahiz eta azkenean zaleak baino ez diren joaten".



JESUSI ETXEBARRIA MUSIKA ESKOLA

1998-99 ikasturteko matrikula epea zabalik.

Ekainaren 1etik 19ra.

Solfeo, abesbatza, pianoa, akordeoia, flauta, txistua eta gitarra (azken hau modalitate guztietan, klasikoa, rock-a, blus-a, modernoa, etabar, solfeoz edo zifraz).
Iturriotz, 32 etxabea ARRASATE Tel.: 79 17 67

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiralean
Setatik 8etara.

Tel.: 79 26 99



ELEKTRONIKA
ARTIKULUEN SALMENTA

Erdiko Kale, 7
Tel.: 79 91 64 • ARRASATE

PATXI AZPIAZU (GAZTETXEKO PARTAIDEA)

“Gaztetxeak une onak bizi ditu”

Zazpi urte dira dagoeneko Arrasateko gazte batzuek San Frantziskoko Ospital zaharra hartu zutela. Harrezkero, hau izan dute euren txokoa: gaztetxea. Denbora luzea da, eta gaztetxeak une ezberdinak bizi izan ditu. Horretaz guztiaz Gaztetxeo Asanbladarekin egin dugu elkarrizketa.

— Gaztetxeak zazpi urte bete ditu. Nola ikusten ditu AGAKOK (Arrasateko Gazte Alternatiboen Kofradia Organizatua)?

— Zazpi urteren buruan gorabehera asko izan ditu. Batzuetan gauzak ez dira nahi bezala joan, eta hanka sartzeak izan ditu gaztetxeak, baina akats horietatik ikasi egin dugu eta azkenean aurrera atera da kontu hau. Gaur egun une onak bizi ditugu. Gehia-

go zabaldu gara, eta jende gaztea gero eta gehiago hurbiltzen da gaztetxera.

— Zer ekintza antolatu ditu gaztetxeak 7. urteurrena ospatzeko?

— Ekitaldi guztiak maiztaren bederatzirako antolatu genituen. Egun horretan bazkaria eta kontzertuak egin ziren. Oso erantzun ona jaso zuen gaztetxeak: bazkarian berrehun lagun baino gehiago elkartu ginen. Zazpi urtean ez da inoiz horrelako erantzunik jaso jendearen aldetik. Hala ere, gaztetxe inguruko bizilagunei barkamena eskatu beharrean gaude egun hargatik.

— Zergatik barkamena?

— Egun hartako ekitaldi batzuk eskuetatik joan zitzaizkigun. Kontzertuak behar zuten baina askoz beranduago amaitu ziren, eta

bizilagunak kexatu egin ziren, zegoen zarategatik. Antolakuntzan jende gaztea eta berria egon zen eta kontrola galdu genuen. Gure aldetik akats bat izan zen eta barkamena eskatzen dugu, baina baita ulertzea. Bizilagunek duten keharik nagusia zarata da. Irtenbide bat izango litzaiteke gaztetxean lanak egitea eta ongi egokitzea. Baina udalak beti jarri digu gaztetxetik alde egiteko egun bat, gero bete ez bada ere.

Guk ezin dugu gaztetxean lanak egin



“Gaztetxea ez da beste edozein taberna modukoa. Gaztetxe bat lana egiteko dago. Gazteon nahiak eta beharrak betezeko”

eta gehiago zabaltzen ari da”

eta dirua gastatu, gero bota behar bagaituzte.

— Zer da gaztetxe bat?

— Gazteok ez dugu geurea den txokorik. Gaztetxeak leku okupatuak dira. Hemen gazteek antolatzen dute gutia, eurena den lekua da. Gaztetxea gazteen nahiei eta beharrei erantzuteko dago. Nola-bait esanda, gazteentzako zerbitzu publikoa betetzen du gaztetxeak.

Gaztetxeetan jendearen parte hartzea da beharrezkoa, denon artean ateratzen da aurrera kontu hau. Gertatzen dena da Arrasateko gazteriak paso

egiten duela. Gauza bat denon artean egin behar denean, besteek egin dezatela esaten dute askok. Betiko kontua. Gazte jendea ez dago prest musu truke lana egiteko. Jendeak poltsikoan dirurik ez badu sartzen, akabo lanak.

— Mondragoen bi gaztetxe ezagutu ditugu. Gureakoa eta oraingoa. Oso ezberdinak dira?

— Bai, garaiak oso ezberdinak dira eta gaztetxea gizar-tearen ispilua da. Gureakoaren garaietan herrian arazo larriak zeuden. Heroinak gogor astindu zuen Arrasate eta baita gaztetxea ere. Oso gogorra

izan zen. Baina 80. hamarkadan okupazioaren mugimendua suspertzen hasi zen, eta filosofiari dagokionez, indartsuagoa egin zen gaztetxea. Gazteen jokaerak bat zetozen zituzten ideiekin, koherentzia zegoen. Gaur egun jende gutxi du filosofia hori barneratua. Gazte askorentzat, gaztetxea beste taberna bat da. Eta ez da hori: gaztetxean lana egin behar da, sartu. Parte hartu. Elkartasuna da gaztetxearen ezaugarriarik nagusienetarikoa.

— Ze asmo ditu gaztetxeak datozen egunotarako?

— Uztaila hasieran Sexualitateari Buruzko Astea egingo da. Zine tertuliak, kontu kontalari erotikoa, jolasak... dena sexuaren inguruan. AHTren Aurkako Asanblada ere gaztetxean dabil lanean. Gure itxaropena gazteengan dago, gero eta indartsuago datoz.

— Zer falta zaio Arrasateko gazteriarri?

— Lehenago aipatu dut: elkartasuna eta konpromisoa. Gazteek ez dugu lanik egiten diruaren truke ez bada, idealak galdu dira. Hori da falta zaiguna. ■



**ZUZEN-ZUZENEAN
FABRIKATIK
ZURE ETXERA**

**SW
Armeko**
Sukalderako Altzarien Fabrika

Kataide industrialdea • 6. pabilioia • ARRASATE • Tel.: 79 91 75

aste gazte

■ BEKAK

• Eusko Jaurlaritzak, sorkuntza koreografikoetarako eta dantza lanen produkziarako diru laguntzak antolatu ditu. Epea: ekainak 20.

■ LANA

• Arrasateko Udalerako, gazte informatzaile bat, Santamainako liburutegi laguntzailea, eta bi ehorzle laguntzaile behar dira. Epea: ekainak 8.

• Ondarroako Udalak artibo-liburutegirako teknikaria behar du. Epea: ekainak 13.

• Salazar eta Nabaskuesko Mankomunitaterako familia langile bat behar da. Epea: ekainak 15.

• Berriozargo Udalak, arkitekto bat behar du. Epea: ekainak 18.

• Etxarri-Aranatzeko Udalerako, kultura koordinatzailea behar da. Epea: ekainak 22.

• Durango Udalak, liburuzain laguntzaile postu bat bete nahi du. Epea: BOEN argitaratu zain.

■ UDAKO IKASTAROA

• Turismoarekin loturiko ikastaro interesgarriak antolatu ditu Gaztela Leongo Turismo Eskolak. Berri gehiago nahi izanez gero, pasa Gazte Bulegotik.

■ LEHIAKETAK

• Arrasateko Gazteria Zerbitzuak antolatuta, "Gazteak eta komunikazioa" IX. argazki lehiaketa. Epea: urriak 9.

Berri gehiagorako:
GAZTE ZERBITZUA
☎ 77 00 65

Kalamudia: Kanabisaren Ikerkuntzarako Elkarte



Norberaren kontsumorako kalamua landatzeko kanpaina egin du Kalamudiak.

Kanabisa farmazietan erosteko aukera zegoen 1925. urtera arte. Urte horretan, Genevako Hitzarmenak medikuntzara eta zientziara murriztu zuen haren erabilera. Azkenik, Estatu Batuek egindako *Marihuana Tax Act* delakoaren ostean, 1937. urtean, kanabisaren debekua iritsi zen.

Gaur egun, legeak kanabisaren erabilera zigortzen du.

Kalamudia Kanabisaren Ikerkuntzarako Euskadiko Elkarte da.

1997ko otsailean Bizkaian sortu zen elkarte honek, hiru helburu nagusi ditu:

Kanabisa kontsumitzen duten pertsonentzat elkarre edo gune bat izatea lortu nahi du Kalamudiak. Azken ikerkuntzek diotenez, (*Egin*, 98-4-26) Eus-

kal Herrian 140.000 inguru pertsonak, biztanleriaren %5, kanabisa erretzen dute noizean behin. Gazteen artean kopurua %23,2ra igozen da. Drogomenpekotasunen Plan Orokorrek azken txostenean jasotzen du kanabisa dela gehien erabiltzen den legez kanpoko droga, 14 eta 18 urte tarteko ikasleen artean.

Kalamudiak, bestalde, landare honen inguruko informazioa zabaldu nahi du jendearen artean. Bere bazkideen artean kanabisari buruz zientzia, medikuntza eta legearen ikuspuntuak zabaldu nahi ditu.

Azkenik, gizartean gaur egun legez kanpoko drogen inguruko eztabaia da pizteko asmoa ere badu Kalamudiak.

Une honetan Kalamudiaren kanpaina nagusia:


"Debekuaren aurka sustrietatik" da. Ekintza honekin, norberarentzako kontsumo bideratutako kalamua landatu nahi dute. Landaketa hauekin Kalamudia taldeak legeak duen kontraesana gainditu nahi du: legeak dio drogen kontsumoa onartzen dela, baina trafikoa dela zigortzen dena. Horrela bada, Kalamudiak autokontsumorako landaketak egitea erabaki zuen. Legediak duen hutsunea gainditu eta erretzen den kanabisaren kalitate hobetu nahi da.

Arrasaten duela hiru hilabete eratu du taldea Kalamudiak. Bazkide egiteko 18 urte izatea da baldintza. Mondragoen bilerak asteazkenetan, arratsaldeko 20:15etan izaten dira, Arrasate Pasealekuko egoitzan.

IMANOL ELORTZA, SAN JOANETAKO HORMIRUDIAREN EGILEA

Aurtengo San Joan jaiek badute hormirudia

San Joan jaiak gero eta gertuago ditugu, eta badakigu dagoeneko jaiak iragarriko dituen hormirudia zein den. Sua, San Joan jaien sinboloa, da hormirudiaren gai nagusia. Aurtengo lehiaketara hamahiru lan aurkeztu dira, baina irabazlea Imanol Elorza, 21 urteko mondragoetarra izan da. Imanol Publizitatea eta Harreman Publikoak ikasten ari da Leioan.



— Nola erabaki zenuen lehiaketara aurkeztea?

— Bilbon etxebizitzan bizi den lagun batek, Iñigo Urrutia eskoriatzarrak, eta biok pentsatu genuen. Zerbait entzun genuen lehiaketaren inguruan eta lanean hasi ginen.

— Zer teknika erabili duzue hormirudia egiteko?

— Lehenengo lana irudia aukeratzea izan zen. Suaren imagina aukeratu eta or-

denegailuz manipulatu genuen, Photoshop programa erabiliz. Hau egin ostean, serigrafiaren teknikarekin irudia hormirudira eramanez. Leioako Arte Ederretako ordenagailuak erabili ditugu lana egiteko.

— Gauza berria da zuretzat lehiaketara aurkeztea?

— Bai, hau izan da lehenengo aldia. Marraketa beti izan dut gogoko, baina orain arte inoiz ez dut aurkezteko asmorik izan.

— Beste lehiaketa batzuetara aurkezteko asmorik baduzu?

— Oraingo ez. Orain azterketak ditut eta ez dut denborarik. Aurrerago agian berriz egingo dut, gustuko izan dut eta.

— Zer egingo duzu irabazitako diruarekin?

— Ehun mila pezeta irabazi ditut, baina oraindik ez dakit zertan erabiliko ditudan. Pentsatu egin behar.



“Hormirudia egiteko hainbat teknika erabili ditut. Ordenagailuz irudia eskaneatzen hasi zen lana”

**UDAKO
Ikastaro
Intentsiboak**

98

OINARRIZKO OFIMATIKA
(Multimedia Sisteman ematen dira)

**PROGRAMAZIOZKO
INFORMATIKA**

INTERNET

**DISEINUA ETA
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA**

KONTABILITATEA

ZERGA GESTIOA PYMEetan

**GIZA BALIABIDEEN
ADMINISTRAZIOA**

**MEKANOGRAFIA
ORDENAGAILUZ**

MICROSOFT PROJECT

FOTOKONPOSIZIOA

**KOMUNIKAZIOA ETA
SARE LOKALAK**

**INFORMATIKA EKIPOEN
KONPONKETA ETA ERAKETA**

INGENIARITZA TEKNIKOA

LAGUNTZAKO KLASEAK

abuztuaren eratean
prestatzen da

AKADEMIA

BASTIDA

INEM-ek HOMOLOGATUTAKO IKASTETXEA

Araba Etorb., 3 - 1^o

Arrasate

Tel.: 79 35 33*-79 32 16

Fax: 79 06 28

e-mail: bastida@tsai.es

ETXEBIZITZAK

1. Erosi

• Arrasateko Bizkaia Etorbideko 14. zenbakian, etxebizitza salgai. Tel.: 943 - 79 22 92.

3. Errentan emateko

• Donostian etxebizitza alokagai, udarako. Tel.: 943 - 76 02 00.

• Torreveijan lau lagunentzako apartamentua alokagai: bi gela, igerilekua, hondartza ondoan, igogailua, ikuzgailua. (San Joanetako astea 40.000 pta). Tel.: 943 - 79 53 18.

• Torreveijan etxebizitza alokatzen da, 15 egun edo hilabeterako. Hondartzatik hurbil. Jantzi dago. Tel.: 943 - 78 14 72.

• Etxebizitza alokagai Peñiscolan, udako hilabeteetan. Kirolgunea: pilotalekua, igerilekua, e.a. Hondartzatik oso gertu. Tel.: 943 - 79 57 31.

• Laredon apartamendua jarriko nuke alogeran San Joan astean edo uztaileko bigarren hamabostaldian. Tel.: 943 - 79 31 47.

• Zarautzen etxebizitza alokagai. San Joanetarako edo uztaileko. Tel.: 943 - 83 12 53.

• Etxe bat alokagai Donostian, uda parterako. Tel.: 943 - 79 14 99 edo 943 - 21 53 98.

4. Errentan hartzeko

• Etxebizitza alokatuko nuke Arrasaten, ahal dela jantzi gabe. Tel.: 943 - 79 93 05.

• Bi logelako etxebizitza hartuko nuke alokairuan. Tel.: 943 - 77 13 87.

• Etxebizitza hartuko nuke alokairuan Arrasaten, Aretxabaletan edo Eskoriatzan. Tel.: 943 - 77 13 20. Ainhoa.

• Etxebizitza merkea erosi edo alokatuko nuke. Arrasaten edo inguruan. Tel.: 943 - 79 28 30.

5. Etxe konpartituak

• Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. Logela aparte izango du. Interesaturik baldin bazaude, etorri ikus-tera: Bañez doktorea, 2, 3. ezkerre.

• Gela bat alokatzen da San Andresko etxebizitza batean. Uztailearen erdialdera arte. Tel.: 943 - 79 98 70. Txema.

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxe konpartituak
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Harremanak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



77 05 65

Arrasate Press • Otolara Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)
E-mail: arrasatepress@readysoft.es

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohaineoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen gorabeheren erantzunkizunik. Asteazken eguerdia baino lehen delitu behar da iragarkia jartzeko.

• Arrasateko alde zaharrean gela bat dugu alokatzeko. Berrí gehiagorako, delitu gauez 943 - 79 96 79 telefonora. Jose Luis.

• Lagun bat behar da etxebizitza osatzeko Aramaion. Tel.: 943 - 77 04 98. Eguerdietan.

• Gela baten bila nabil etxe konpartitu batean, Arrasaten. Tel.: 929 - 96 85 87. Juanjo.

• Gela bat alokatzen da, alde zaharrean. Tel.: 943 - 79 87 59.

• Taberna salgai. Tel.: 943 - 77 02 11.

14. Errentan emateko

• 130 m²ko behe komertziala alokatzen da Izarra dorrean. Tel.: 79 25 26.

• Eskatu pabilioian garajea alokatzen da. Tel.: 943 - 79 59 08.

LANA

17. Eskaintzak

• Andra euskaldunak etxeko lanak egin, eta umeak eta pertsona nagusiak zainduko lituzke. Arratsaldean egingo luke. Tel.: 943 - 79 07 73.

• Esperientziadun klinika laguntzaileak pertsona helduak zainduko lituzke, etxeetan edo ospitalean. Gauez ere bai. Tel.: 943 - 79 34 09.

• Taberna bateko barran lan egiteko zerbitzaria behar da. Tel.: 943 - 77 17 53.

• Tabernan zerbitzari lanetan aritzeko neska prest. Tel.: 943 - 79 68 77. Vanessa.

• Neska arduratsua prest umeak zainduko. Tel.: 943 - 71 53 74. Goize-tan edo 20:00etatik aurrera.

18. Eskaerak

• Neska gertu atariak garbitzeko. Tel.: 943 - 79 20 55. Arantxa.

• Ume bat zaintzeko emakumea behar da Aramaion. Tel.: 929 - 42 23 14. Deitu 21:00etatik aurrera.

• Neska prest ile apaindegian lan egiteko. Tel.: 943 - 79 53 57. Goizez edo gauez.

• Emakume behar da umeak zainduko. Tel.: 943 - 77 06 50. Gauez delitu.

• Turismon lizentziatutako neska euskalduna lanerako prest. Ingelesa eta frantsesa ere menderatzen ditu.

• Lanak ordenadorez pasatzeko pertsona bat behar da. Tel.: 943 - 79 04 14.

• Zerbitzaria behar da. Tel.: 943 - 79 67 12. / 943 - 79 75 93.

• Neska bat behar da ume bat zaindu eta etxeko lanak egiteko Uribe auzoan. Tel.: 943 - 77 03 05.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

• DBH eta LOGSEko eskolak ematen dira. Talde txikiak eta irakasle esperientziadunak. Tel.: 943 - 79 56 78.

• Edozein lehiaketatan parte hartu edo Zuzenbideko ezaguera praktikak izan nahi duten lizentziatuei (edo azken urteko karrerako ikasleei) zuzendutako praktikak eskaintzen dira. Tel.: 943 - 79 13 09 (13:00etatik 14:00etara).

• Eskola partikularrak ematen ditut Aretxabaletan. Tel.: 943 - 79 94 04/ 943 - 77 17 42. Mari Jose.

• Psikologoak irakur-idazmenetarako (arreta, perzeptzioa, oromena) laguntza emateko gertu. Tel.: 943 - 79 86 28.

21. Eskaerak

• LOGSEko 1. mailako ikasle batek matematikako eskola partikularrak hartuko lituzke. Tel.: 943 - 79 68 84.

• Biologjako ikasleak matamatika eskolak behar ditu. Tel.: 943 - 79

42 64. Deitu gaueko 22:00etatik aurrera.

• Ingelesko eskolak hartuko nituzke. Tel.: 943 - 79 99 41. Beatriz.

• Ekonomiako eskolak hartuko nituzke. Tel.: 943 - 77 05 25.

• Frantseseko eskolak hartuko nituzke. Tel.: 943 - 79 79 63. Deitu arratsalde. Igor.

• Etxean eskola partikularak hartuko nituzke, BTT 2. mailako elektroteknia, matematikak, ingelesa eta gaztelania. Tel.: 943 - 79 34 53

• Lau pertsonarentzako kanpin erremolkea salgai. Aurrerapena (avance) eta sukaldea dauzka. Egoera oso onean. Prezioa 125.000 pta. Tel.: 79 49 28.

• Lekuz aldatu behar dudala eta, autoa saltzeko presa dut. Ford Escort L. Tel.: 943 - 71 53 00.

• Peugeot 205 gorria salgai. Eguzki sapaia dauka. Tel.: 943 - 76 21 70 / 943 - 77 12 04. Deitu gaueko 20:00etatik aurrera.

• Ford XR-2 salgai. Berri-berria. 250.000 pta. Tel.: 943 - 79 80 44 Lutxi.

• Josteko eta zig-zag egiteko Sigma makina industrialia salgai. Tel.: 943 - 79 42 70.

• Bi hilabeteko txakurkumea salgai. Hasky siberiarra. Tel.: 943 - 77 17 82.

• Marrazteko mahaia salgai. Erabili gabea. Neurriak: 132x93 zm. Prezio erdian. Tel.: 943 - 79 33 17. Gaueko 21:00etatik aurrera.

• Sukaldean erabiltzeko etxeko tresna elektriko erabiliak salgai. Oso prezio onean. Tel.: 943 - 79 13 26.

• Correoseko lehiaketetareko gai zerranda salgai. MAD akademiakoa. Tel.: 943 - 79 60 81.

• Lau lagunentzako lekua duen dena erremolkea salgai. Oso egoera onean eta prezio interesgarrian. Tel.: 943 - 71 52 24. 20:00etatik aurrera.

943 - 79 90 46.

31. Galdu

• Erijoia zeukan emakume poltsa galdu nuen igandean, kaletik San Andreserainoko bidean. Tel.: 943 - 79 52 89. Goizez deitu.

• Maiatzaren 24an puntuzko jertsei urdina galdu nuen Zaldibarren. Inork aurkitu badu, dei egin dezala, mese-dez, 943 - 14 06 26 telefonora. Aser.

32. Aurkitu

• Ostiralean haur kotxe baten manta arrosa aurkitu nuen Biteri Etorbidean. Tel.: 943 - 77 11 68.

MOTORRA

23. Saldu

• Erremolke eta kanpadenda salgai. Alpen-kreuzer Allure modelokoa. Nahiko berria. Tel.: 943 - 79 37 60.

• Bi - BF matrikuladun autoa salgai. 110.000 km. ditu eta dieselduna da. Tel.: 943 - 76 09 12.

• Yamaha TZR 80 RR salgai. 17.000 km. VI - O matrikula. Tel.: 943 - 79 76 64.

DENETARIK

26. Saldu

• Logela salgai. Armairu bat, kabezero bat, bi gaumahai. Tel.: 943 - 77 15 84. Gaez.

• Motorrean ibiltzeko larruzko jaka salgai. Tel.: 943 - 79 40 58. Maider.

27. Erosi

• Ehiza txakurrak eramateko bigarren eskuko eskorga merkea erosi nuke. Tel.: 943 - 78 34 64. Migel Angel.

• Disko txikiak eta handiak erosten ditut. Tel.: 943 - 52 65 77.

29. Eman

• Bost hileko txakur mestizoa oparitu nuke, ondo zaintzekotan. Tel.:

HARREMANAK

35. Harremanak

• Kaixo, Xabi naiz eta nahi nuke 33 urtetik beherako mutilekin harremanak izan. Asmo bera baduzu, idatzi posta kutxa honetara: 91 zenb. Oñati. 20560 Gipuzkoa. Nire aldetik, erabateko zuhurtasuna.



Zatoz eta ezagutu gaitzazu!



VOLVO



mazda



GALLOPER



Co-Car, S.L.



HYUNDAI



MITSUBISHI MOTORS

Aldikar autoak, S.L.

Aldibi autoak, S.A.

Izar autoak, S.L.

Auto Suecia

Musakola autoak, S.L.

Aldikar autoak, S.L.

Musakola autoak, S.L.

ALDIBI AUTOAK, S.A. • Zigorrola, 1 • ARRASATE • Tel.: 71 20 02 / Faxe: 79 65 65

PERENAIKA

Euskaldunon
Egunkaria

EUSKALDUNON HAMALAU ZORTZIMILAKOAK

EUSKAL HERRIA
MUNDUAREN GOIKO MUGETAN
Hamalau euskal zortzimilakoak
ANTXON ITURRIZA

- 290 x 210 mm
- Couché paperean inprimitua
- 196 orrialde
- Antxon Iturrizak idatzitako testua
- 162 kolorezko argazki ikusgarri
- Protagonisten aburuak
- Espedizioen barruko harremanak, sentimentuak, anekdotak...

DATORREN LARUNBATETIK AURRERA,
24 FASZIKULUTAN
EGUNERO DOAN *Egunkaria* REKIN

Alkatearekin Berbetan, asteazkenean ATBn

Aldian behin, Mondragoeko alkatea Arrasate Telebistara hurbiltzen da herrian gertatu diren, edo herritarrak kezkatzen dituzten gaien inguruan hitz egitera. "Alkatearekin Berbetan" saioak, alkatea eta herritarrak gerturatzea du helburu. Asteazkenean, gaueko bederatzietan izango da alkatearekin hitzordua.

Jose Mari Loiti alkatea azkenengo aldiz Gabonak aurretik izan zen Arrasate Telebistan. Ordudanik gaurdaino herrian makina bat kontu gertatu dira; hauen inguruan alkateari zer bait galdetu edo esan nahi izanez gero, 77 06 90 telefonora deitu dezakezue, eta zuzenean alkatearekin berba egiteko aukera izango duzue.

Saioa Patxi Monterok zuzenduko du.



Jose Mari Loiti, Arrasateko alkatea.

KUKARATXA MOTEL

Ostegunean Kukaratxa Motel saioaren jarraitzaileak adi-adi

egon telebistara, lehiaketaren finala jokatu du eta. Beraz, urduritasuna pil-pilean.

Arrasate Irratia 107.7 FM

LARUNBATA

9:00 **Egunaren harian.** (albistegia)
9:30 **Musika**
10:00-11:00 **Jailarai** haurrentzako programa. Maider Errarte, Garbiñe Perez eta Belen Aranbarrekin.
11:00-12:00 **Zoroklasikoak.** Musika klasikoa, Eugenio Etxebeste, Iñaki Olaizola eta Eusebio Iñarrarekin.
12:00-14:00 **Bi Zoro eta Zu** magazina, Mikel Lizarralde eta Edu Abasolorekin.

ASTELEHENA-OSTIRALA

GOIZ-EGUARDIZ

9:00 **Egunon Arrasate.** (albistegia)
9:30-11:00 **Goizoro.**
11:00-13:00 Gaueko programen errepikapena.
13:00-14:00 **Goizak gaur.** (Euskadi Irratia).
14:30-16:00 **Bixau orduan**

GAUEZ

Astelehena

20:30-21:00 **Iluntzean berriketan.**
21:00-22:00 **Jokoz kanpo.** Kirolak, Gorka Etxabe, Belen Carenas eta Rafa Mungjarekin.
22:00-23:00 **Soloik Solo.**

Asteartea

20:30-21:00 **Iluntzean berriketan.**
21:00-22:00 **Hitza ta Ekintza.**
22:00-23:00 **Euskal Festa.** Goizane Arana, Maider Errarte, Dabid Iglesias eta Garbiñe Perezekin.

Asteazkena

20:30-21:00 **Iluntzean berriketan.**
21:00-22:00 **Musika**
22:00-23:00 **KK2A.**

Osteguna

20:30-21:00 **Iluntzean berriketan.**
21:00-22:00 **Kaleko Hautsak astinduz.**
22:00-23:00 **Kutrelax.** Belen Carenas eta Kaittin Allenderekin.

Ostirala

20:30-21:00 **Planning Prest.**
21:00-22:00 **Music Box.**
22:00-23:00 **Txerrendantza**
23:00-24:00 **Draxtor.** Makina musika.

■ ATBko programazioa

LARUNBATA, 30	ASTELEHENA, 1	ASTEARTEA, 2	ASTEAZKENA, 3	OSTEGUNA, 4	OSTIRALA, 5
Asteazkenean zehar eskainitako programa interesgarrien errepika.	13:30 Astebete. (Errepika)	13:30 Mondrasport. (Errepika)	13:30 Lotsa Barik. (Errepika)	13:30 Alkatearekin berbetan. (Errepika)	13:30 Kukaratxa Motel. <i>Unai Iparagirre, Betirtze Iñurritegi eta Alazne Ruiz de Munainekin.</i> Gaztetxoendako lehiaketa umoretsua.
13:30 Kukaratxa motel	20:00/20:30/21:00 Berriak.	20:00/20:30/21:00 Berriak.	20:00/20:30/21:00 Berriak.	19:15 Kukaratxa Motel. Gaztetxoentzako lehiaketa umoretsua.	20:00/20:30/21:00 Berriak.
14:15 Astebete	21:30 Mondrasport. <i>Itxaro Zubillaga.</i> Asteburuko kirol jardueraren errepikapena zabala, Zaldibarko futbito txapelketa, gonbidatuak... eta Arrasate Kirolak lehiaketa.	21:30 Lotsa Barik. Maier Urangak aste honetan, Urtzi Amiano Errealeko Jubenilen atezaina elkarrizketatuko du.	21:00 Alkatearekin Berbetan. Patxi Monterok solasaldia izango du Jose Mari Loiti alkatearekin.	20:00/20:30/21:00 Berriak.	20:00/20:30/21:00 Berriak.
14:45 Kaleidoskopia. Kultura Magazina. Aste honetan DJ bat elkarrizketatuko du.				21:30 Kukaratxa Motel.	21:30 Astebete



Jaime de Mora y Aragón bain dela pare bat urte hil zen. Lanbide asko izan zuen bere bizitzan: aktorea, pianista eta, batez ere, Marbellako jet-set-eko bizizalea. Morak behin Mondragoe bisitatu zuen, ez dakigu noizkoa den argazkia, baina

irudian agertzen diren itxurengatik esan daiteke 60. hamarkadan gaudela. Piano kontzertua eskaintzera etorri zen Arrasatera, beharbada *Idoia* izeneko dantzalekuan. Saioa bukatu ondoren, Udalpe elkartera hurbildu zen eta han, txiripaz, arrasatear talde batekin egin zuen topo. Azke-

nean, denak mahai berean eseri ziren, tertulia giroan.

Moraren eskuinaldean daudenak berarekin etorri ziren: musiko laguntzaileak eta ordezkaria. Moraren atzealdean, edalontzia eskuan duela, Jose Kasino agertzen da, eta lehioaren aurrean, Tomas Azkarate (✠). Honen eskui-

naldean, Jesus Montiano (✠) eta beste lagun batzuk, gehienak, emakumeak. Ilada honetako lehena, Tere Garmendia da.

*Argazkia: Laso
Berriemalea:
Tere Garmendia*

NAROKI

Liburutegia

- Selektibitateko frogen erantzunak
- Testuliburuak
- Oporretarako aproposak diren nobelak
- Eskolarako materiala
- Aukera zabala gupilak dituzten bizkar-zorroetan
- Puzzleak
- Ilaunezko panpinak
- Portzelanazko panpinak

Bitxitegia

Orain Naroki bitxitegian diseinurik berriena duten bitxiak dituzu erosgai prezio ezin hobean.
Zatoz! Ez ezazu aukera hau galdu!

Erdiko kale, 23 • Tel.: 943 - 79 20 47 • ARRASATE

Iturriotz, 24
Tel.: 943 - 79 19 71

Maisu Arano (Portaloian)
Tel.: 943 - 79 26 23

Epelde



Udako eskaintza berezia!

Zure argazkiak 10 x 15 nahiz 13 x 18 neurrian

35 pta

**argazki
bakoitza**
errebelatua + BEZ.a aparte.

a, eme...
interiores



Garibai, 9
20.500 ARRASATE
(GIPUZKOA)
Tel.: 79 15 03
Telefax: 79 14 89

a, eme... interiores



DESKONTUAK

%20

%30

%50

**Altzari
erakusketak
aldatzen ari gara**

grupo



**Amuebladora
Mondragonesa**



etxeko ekipamendu osoa